anboto
DURANGALDEKO ASTEKARIA
2017ko otsailaren 3a
15. urtea
663. alea
www.anboto.org
TOKIKOM

# Iraunkortasunaren plaza

Ingurumen iraunkorrari buruzko Berdeago azoka inauguratu dute gaur Landakon. Aurten, lehenengoz, bi asteburutan egingo dute azoka. Ohiko energiari buruzko atalaz gainera, produktu ekologikoei lekua egingo diete. > Gehigarria





## San Blas azoka baserriko produktuen erakusleiho izango da gaur Abadiñon

Zelaietako trinketearen inguruan atondu duten azokara jendetza batu da, beste urte batez, San Blas egunez. Abelburuak, nekazariek eta artisauek mimoz landutako produktuak, baserriko makineria eta landare-haztegien salgaiak topatu dituzte bisitariek, goiz guztian zehar, Zelaietako kaleetan eta Ferialeku inguruan. Urteroko ohiturari jarraituz, txistulariek abiatu dute San Blas eguneko jai egitaraua. Asteburura begira ere, jai-giroa gozatzeko aitzakia ugari izango da Zelaietan. Gaur eta bihar gauean, esaterako, kontzertuak izango dira gozagai, Txosnagunean. > 4

INGURUMEN GEHIGARRIA






**Durango > 3**
Aramotzeko txabolak husten saiatu dira udaltzainak

**Durango > 2**
Argindarraren kontratua lehiara aterako du Durangoko Udalak

**Elorrio > 6**
'Katxue'-ren eta Bellonen heriotzen urtemugan, gogoeta

**Abadiño > 9**
Alfredo Alonso Chiosen aritu da Zaporeak proiektuan laguntzen

## Herririk herri

# Iberdrolagaz kontratua eten, eta energia %100 berriztagarria jaso gura du udalak

### Argindarraren zerbitzua lehiara aterako dute, EH Bilduren mozioa PP ez beste guztiek onartu ostean



Martitzenean hartu zuten lizitazioaren erabakia osoko bilkuran.

**DURANGO** Markel Onaindia

Neguko egunik hotzenetan argindarraren prezioa igotzeak zalaparta sortu du gizartean, eta Durangoko osoko bilkurara ere ailegatu da eztabaida, EH Bilduren mozio bategaz. PP ez beste guztiek onartuta, zerbitzu hori lehiara aterako du udalak; energia %100 berriztagarria jaso gura du, Iberdrolagaz kontratua eten ostean. EH Bilduk azaleratu du milioi bat euro inguru kobratzen diola enpresak udalari urtean.

Lizitazioan honako baldintzak ipiniko dituzte: energia guztia jatorri berriztagarrikoa izatea; hornitze puntuen analisiak egitea, potentzia eta beharrizana orekatuta dauden ikusteko; eta herritarrei berbaldiak eskaintzea. Lizitazioaren aurretik, berriztagarrien arloan esperientzia duen erakunde bat kontratatzea erabaki dute, uraren eta energiaren egungo kontsumoaz diagnostikoa lantzeko.

Neurri horiek guztiak Tokiko Agenda 21eko programan eta aldaketa klimatikoaren aurkako planean txertatuko dituzte.

**"Gehiago irabazteko"**

EH Bilduren ustez, "miserablea" da oinarrizko zerbitzu bat multinazional gutxiren esku egotea. "Beharrik gehien dagoenean prezioa igo dute, gehiago irabazteko", kritikatu zuen Dani Maeztuk.

Pilar Ríos alkateordeak (PSE-EE) gogoratu zuen, udalean eman izan direla pausoak energiaren arloan, eguzki plakak eta geotermikoak ipinita, adibidez. Mozioa onartu eta ekarpenak egin zizkioten testuari sozialistek. Goiztidi Diazek (EAJ) proposamenagaz ados daudela adierazi zuen, eta PSE-EEren ekarpenekin bat egin zuen. Julián Riosen (HE) iritziz, argindarraren sistema "iruzur bat dela argi geratu da", eta eguzki energiari mugak ipini izana salatu zuen.

Fran Garatek (PP) eguraldiari eta lehengaien prezioari egotzi zien argindarraren gorakada.

# Abasolori Urrezko Baloiaren izendapena kentzea eskatu dute

### Mozioa EH Bilduk, Herriaren Eskubideak eta PSE-EEk babestu dute

**DURANGO** M.O.

"Emakumeenganako erasoa" delakoan, Abasolori Urrezko Baloiaren izendapena erretiratzea eskatu dio udalak Cantera Deportiva hedabideari. Plataforma Feministak aurkeztutako mozioa EH Bilduk, Herriaren Eskubideak eta PSE-EEk babestu zuten martitzenean; EAJ eta PP abstenitu egin ziren.

Plataforma Feministak gogoratu zuen jokalariari indultua eman ziotela, sexu erasoengatik zigortu eta gero. Gero, feminista baten aurka salaketa ipini zuela nabarmendu zuten, eta orain saria eman gura izatea kritikatu ere bai. "Bere izendapena beste eraso bat da", ohartarazi dute.

Rosa Mintegiren (EH Bildu) ustez, "kontzientziazio kanpainak alferrik dira", horrelako sariak emanez gero. "Sari honegaz, eredu bat izan daiteke", esan du futbolarien eraginari buruz. Julia Pererak (HE) adierazi zuen Abasolorenak "eraso larriak" izan zirela. "Ez du minik onartu, ez da damutu". Pilar Ríos alkateordearen iritziz, hedabideoek "sentsibilitate falta erakutsi dute genero indarkeriarekiko, eta errespetu falta egiten den lanarekiko".

EAJk ez zuen berbarik egin abstentzioa arrazoitzeko, PPk bai ordea. "Ez dakit saria eraso bat den ala ez", esan zuen Fran Garatek erasoen aurka berba egin ostean. Gaia bilkuran lantzeaz zalantza agertu zuen.

# Flashmob bat antolatu du Andereak elkarteak

### Otsailaren 12an izango da dantza saioa, Ezkurdin

**DURANGO** M.O.

Mundu mailan burutzen den *V-Day* izeneko ekimenagaz bat eginda, emakumeenganako indarkeriaren aurkako flashmob bat antolatu du Andereak elkarteak. Otsailaren 12an izango da dantza saioa, 12:00etan, Ezkurdin.

*Emakumeenganako indarkeriaren aurka, zatoz dantzatzera* lemapean burutuko dute flashmoba. Idoia Bediaga abadiñarrak egin du dantzarako erabiliko den abestiaren euskarazko bertsioa, eta koreografia Inalvis Etxebarriak. Tamara Lleidak, bestalde, eskoletan landu du dantza hori, entsegu lez.

> Idoia Bediaga abadiñarrak egin du dantzarako erabiliko den abestiaren euskarazko bertsioa

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2017ko otsailaren 3a
14. urtea - 663. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.
**Publizitatea:** Itxaso Martinez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi.
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso Esteban Urtiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi.
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028
Tirada: 11.500 ale

**Laguntzaileak:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

# Aramotzeko txabolak desalojatzen saiatu dira udaltzainak

## Auzokideen eskari bat da txabolak kentzea; atzo, hiru lagun zeuden udaltzainei itxaroten

**DURANGO** Markel Onaindia

Aramotzen, saihesbidearen magalean dauden txabolak desalojatzen saiatu ziren atzo udaltzainak, baina, momentuz, ez dute lortu. Txaboletan hiru lagun zeuden itxaroten; eguaztenean udaltzainen abisua jaso zuten, handik irten behar zutela esanez, biharamunean eraistea hasiko zelako, baina ez zuten alde egin. Euregaz berbetan egon ostean, kaleratzea atzeratzea erabaki zuten udaltzain eta teknikariek. Agindu judiziala eskatuko dute, txaboletan sartu eta ondoren bota ahal izateko. Aramotzeko auzo elkarteen eskari bat da txabolak kentzea; prentsan erreklamatu izan dute, eta, azkenaldian, kartelak ere ipini dituzte udalari ardura eskatuz.

Izan ere, txaboletan bizi diren lagunek esan zuten pertsona gehiago egon direla han bizitzen, baina Errumaniara bueltatu direla. Datuen segurtasuna eduki barik, ez desalojatzea erabaki zuten udalaren izenean joan zirenek. “Indarrez ateraraztea saihestuta, pertsona hauen giza eskubideak eta duintasuna bermatu gura ditugu”, esan du udalak prentsa ohar bidez. Gizarte zerbitzuen laguntza ere eskaini diela azaldu du instituzioak, eta handik irtetean Amankomunazgoaren neguko aterpera bideratuko dituztela.

### “Nora joango gara?”

Txaboletan bizi den gazte batek adierazi du 7 edo 8 bat urtez egon direla bertan bizitzen. “Orain nora joango gara?”, galdetu du gazte errumaniarrak. Bere esanetan, ez dute nora jo. Bera une honetan lanean dago fabrika batean, baina, hala ere, egoera zaila bizi dutela argitu du. Beste bi lagunek dirua eskatu ohi dute kalean. Andre batek azaldu du ez duela sorterrira bueltatu gura, han ere ez duelako etxerik.

Baldintza eskasetan bizi izan dira. Hondakin eta lokatz artean, higiene egokirako aukerarik barik, hotzari eta euriari ahal bezala aurre eginez.

> Txaboletan bizi den gazte batek adierazi du 7 edo 8 bat urtez egon direla bertan bizitzen




Udaltzainak txaboletara heldu zireneko unea, atzo.



Txabolen ikuspegi orokorra.



# Asteburuaren atarian, milaka lagun batuko dira San Blasetan

## Asteburu osoan zehar izango da Zelaietan San Blas jaiak gozatzeko aukera



Nekazaritza ekologikoari buruzko standa ipini du ENEEK elkarteak, lehenengoz.

**ABADIÑO** Itsaso Esteban

Zelaieta auzoko txokoak baserrietako produktuz eta jai-giroz bete ditu, gaur goizean goizetik, San Blas azokak. 250 abelburu, baserriko produktuen 94 saltoki, 26 artisau erakusmahai, baserriko makinen 23 saltoki eta landare-haztegien dozena bat postu izan dituzte bisitariek eguerdira arte zabalik.

Trinketearen ostean atondu dituzte abelburuen karpak, eta trinketearen aurrean baserriko produktuen 94 saltokiak. Abelburuei dagokienez, iaz berreskuratu zuten lehiaketa burutu dute aurten ere: 300na euroko saria eta garaikurra jaso dute azokako sortarik onenak, herriko bigantxarik onenak eta herriko zezenik onenak. Abadiñoko lau abeltzainek hazitakoak izan dira azokara eramandako abelburuetako batzuk.

Nekazaritza azokan, ohi bezala, baserriko askotariko produktuak izan dira eskuragai, eta aurten, lehenengoz, nekazaritza ekologikoari buruzko standa ipini du ENEEK elkarteak.

Txanbolin taldeko txistularien kalejiragaz hasi da gaurko egitaraua, 09:00etan, eta urtero bezala, Ferialekuan Durangaldeko bertsolarien jarduna ere izan da entzungai. San Blas eguna amaitzeko, idi probak eta kontzertuak izango dira, gaur gauean, aukeran. Bihar, San Blas Txiki eguna ospatuko dute, eta etzi ere jai-giroa nabaria izango da Zelaietan.

Jose Luis Navarro alkateak, Iñaki Rekalde zinegotziak eta Iratxe Uriarte BBKren gizarte ekintza arloko ordezkariak eman zituzten martitzenean azokaren inguruko datu eta azalpenak, eta San Blas azokak eta bestelako azokek ere baserritarren eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena errazten dutela azpimarratu zuten.

# Ez du aurrera egin eskolak ordu erdi lehenago amaitzeko proposamenak

## Matienako eskolako gurasoen ekimena izan da

**ABADIÑO** Itsaso Esteban

Boto gutxiren aldeagaz ez du aurrera egin Traña-Matienako eskola kontseiluko gurasoek ordutegia aldatzeko egin duten proposamenak —boto gutxi batzuk falta izan zaizkie aldaketa gauzatzeko behar den eskola komunitateko kideen botoen %80 lortzeko—. Bazkalostean eskolak 14:30ean hasi, eta irteera ordua ordu erdi aurreratzea zen proposamena, eta botoa eman duten gurasoen gehiengoak horren aldekoa eman du: 313 familietatik 225ek.

Interesa eta eztabaida piztu ditu proposamenak, eta familien %98k hartu du parte bozketan. Gainera, ez da lehenengo aldia Traña-Matienako eskolan gai horren inguruan botoa ematen dutena. Duela bi urte, orain baino jende gutxiagok egin zuen aldaketaren alde (%65ek).

### Aldaketarako arrazoiak

Ordutegi aldaketa proposatu duten gurasoek diotenez, ez da beharrezkoa eguerdian horren geldialdi luzea egitea (12:30etik 15:00etara). Guraso horien berbetan, bazkalosteko tarte horretan gertatzen dira umeen arteko elkarbizitza arazorik gehienak. Etxera ailegatzeko ordua aurreratzea, bestalde, onuragarria litzateke umeentzat, guraso horien ustez: arratsaldeko ekintzak lehenago amaitu, eta hurrengo egunean deskantsatuago egotea ahalbidetuz.



Parte-hartze oso handia izan da galdeketan: familien %98k bozkatu du.

# Chiapasko irrati estazioak sendotzeko proiektua babestu du Iurretako Udalak

## Egitasmo honetara 4.977,82 euro bideratuko ditu

**IURRETA** J.G.

Iurretako Udalak, Lumaltik Herriak Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako erakundearen bidez, Mexikoko Chiapas estatuan garatzen ari diren irrati indigenen proiektua babestuko du. Udal arduradunek azaldu dutenez, “Chiapas estatuan erresistentzia egiten ari diren herri indigena zapatisten irrati estazio komunitarioen sarea sendotzeko” proiektua babestuko dute. Herrialdeak garatzea lortzeko eta baldintza sozialak hobetzeko, herrialde behartsuenen garapenagaz elkartasun konpromisoa mantentzea helburu duela gaineratu dute udal ordezkariek.

### Irratietan hobekuntzak

Chiapasko FM irrati estazioko 12 kabinen instalazio elektrikoa hobetzea izango da egitasmo honen ardatzetako bat. Izan ere, korronte elektrikoaren ezegonkortasunagatik eta tximisten deskargengatik ekipoek akatsak dituzte. Era berean, ekimen honen bidez, 20 emakume teknikari irrati estazioak konpontzeko trebatu gura dituztela azaldu dute.

### Proiektua elkarlanean

Kalkulatu dutenez, proiektuaren aurrekontua 85.909,42 eurokoa da. Memoria Viva tokiko elkarteak gainerako 80.931,50 euroko ekarpena egingo du.



Memoria Viva tokiko elkarteak ere finantzatuko du proiektua.

# Hasi dituzte ospitaleko lursaileko obrak

**ZALDIBAR** I.E.

Orain arte ospitale psikiatrikoaren hesi barruan itxita egon den 3.448 metro koadroko lursaila zaldibartar guztientzat zabalik egongo den berdegune moduan egokitzeko lanak hasi zituzten, joan zen astean. Aurreikusi dutenez, lau hilabe iraungo du obrak.

174.455 euroko aurrekontuagaz, Lasuen enpresak gauzatuko ditu eremua hesituko duen horma berria altxatzeko lanak. Altzairu eta kristalezko 220 metroko horma bat izango da eraikiko dutena, 2 metroko altuerakoa. Ohiko harrizko hesi opakuaren ordez, gaur egun portuetan eta urtegietan egoten direnen antzeko hesia altxatuko dute ospitaleko lursaileko berdegune berria inguratzeko.




# ZORATU BEHARREAN IBIL EZ ZAITEZEN, ALDUNDIA ONDOAN IZANGO DUZU.

Durangon, herritarrei laguntzeko eskualde-bulego bat ireki dugu. Bulego horretan, aukera izango duzu Bizkaiko Foru Aldundiarekin egin behar dituzun gestioak Bilboraino joan gabe egiteko. Beraz, denbora aurreztuko duzu, eta lasaiago ibiliko zara.

**BULEGO BERRIA DURANGON**
Askatasun Etorbidea, 12. 48200 Durango
**Eskatu hitzordua: 94 406 80 00**
www.bizkaia.eus/hitzorduak

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# “Zauriak ez ixtea nahita egiten da, memoria egin ahal ez izateko”

20 urte dira Jose Mari Aranzamendi presoa hil zela, eta 3 urte beteko dira Arkaitz Bellonen heriotzatik; berriro ez gertatzeko aldarria egin dute




Luzar eta Guridi, solasean, euren lagunen oroigarriak alboan dituztela.

**ELORRIO** Markel Onaindia

**Aritz Luzarrek eta ‘Txato’ Guridik zauri bera konpartitzen dute: lagun bana hil zitzaien kartzelan. Duela hiru urte hil zen Arkaitz Bellon, bihotzeko edema baten ondorioz, Puertoko (Cádiz, Espainia) espetxean. Hogei beteko dira Jose Aranzamendi ‘Katxue’ bere buruaz beste eginda topatu zutenetik Alcalá Mecon (Madril, Espainia). Biak hil ziren otsail hasieran; domekan izango da Bellonen urtemuga, martitzenean Aranzamendirena. Espetxe politika salatzeko ekitaldia deitu dute hilaren 7rako, 19:00etan, plazan.**

**Otsail hasiera berezia izango da zuentzat.**

**Aritz Luzar:** Data hauetan gogoratzen eta pentsatzen egoten gara, ez dugu jakiten ezta zelan kokatu ere. Momentu hartan *shock* bat izan zen, eta data hauek hurbildu ahala, zurrunbilo horretan sartzen gara. Ostera ere tristura.

**‘Txato’ Guridi:** Guri ere kostatu zitzaigun *Katxue*rena sinistea. Kalera atera ginen, haserre, baina ez geunden prestatuta. Nahiz eta jakin zelako egoera bizi zen, bera ondo ikusten genuen. Ez genuen ulertzen; horretara behartu zuten. 20 urte pasatu dira eta gogorra da.

**Bellonen harreran espetxe politikari bota zenioten heriotzaren ardura.**

**A.L.:** Jende batek pentsa dezake kasualitate bat izan zela, baina kausalitate bat zegoen, planifikatu egiten dena. Kartzela politika hori pertsona bere ingurunetik urruntzera eta apurtzera bideratuta dago. Ez zen izan naturala. Injustua izan zen, baina injustizia hil baino askoz lehenago hasi zen. Negargarria da, oraindik ere, beste edonori gerta dakiokeela imajinatzea, presoen eskubideak hankapean nola erabiltzen dituzten ikusita. Kartzelara sartzeko oinarri politiko bat zegoen, eta hau konpontzeko ere erabaki politiko bat hartu beharko da. “Betiko kontua” diote batzuek; nik betiko lagun bat galdu nuen, betiko.

> *“Ez errepikatzeari lehentasuna eman behar genioke denok. Urgentea da”*

**Babestuta sentitu zineten?**

**A.L.:** Kolpea ez zen jausi pertsona baten familiaren edo bere espektro politikoaren gainean bakarrik. Dramatikoa eta injustua izan zen herri batentzat. Babesa erabatekoa izan zen. Egun haietan ikusi genuen jende askok bizi duela arazo moduan. Jendeak ikusten du amaitu beharreko zerbait dela.

**Oraindik 300 preso inguru daude sakabanatuta.**

**T.G.:** Horrek kezkatzen gaitu. Ez dago dispertsioa ulertzeko erarik, eta hor parte hartu zutenek badaukate abagunea konpontzeko. Preso gaixoak hiltzen ari dira; krudeltasun gordina da, eta elkarbizitzari ez dio ekarpenik egiten.

**Asko berba egiten da Gerra Zibileko eta Frankismoko zauriak ixteaz. Zuen zauriak ere bizirik daude. Zelan eraiki behar da etorkizuna ?**

**T.G.:** Gu frankismo garaitik gatoz, antifrankistak izan ginelako gara gu garena. Zaila ikusten dut errelato bakarra idaztea. Baina noiz amaitzen da frankismoa, Francok egindako Konstituzioagaz? Hor dago arazoa. Hortik hasi beharko ginateke zauriak ixten. Erantzukizun konpartitu hadia dago.

> *“‘Betiko kontua’ diote batzuek; nik betiko lagun bat galdu nuen, betiko”*

**A.L.:** Nire ustez, zauria ez ixtea nahita egiten da, memoriarik ez egin ahal izateko. Zauria duzun bitartean, zelan joango zara memoriara? Geuk egin beharko dugu zauriak ixte hori, gero gainontzeko dena egiteko. *Katxue*ren eta Arkaitzen kasua zelan kontatuko da hemendik eta urte batzuetara, batez ere mina errepikatzen jarraituko bada? Bada ordua zauriak itxi eta memoria egiten hasteko. Garrantzitsua da kontziente izatea sufrimendua bazter guztietan egon dela. Enpatizatzeko gaitasuna behar da, eta ez errepikatzeari lehentasuna eman behar genioke denok. Urgentea da.

# Plan orokorrerako 100.000 euro sartu dituzte aurrekontuetan

Aurten aurrekontuen zenbateko osoa 669.671 eurokoa izango da

**IZURTZA** J.Derteano

Urtarrileko udalbatzarrean 2017ra begirako aurrekontuak onartu zituzten. Gobernu Taldean dagoen EH Bilduren aldeko botoekin atera ziren aurrera. EAJk kontra bozkatu zuen.

Aurrekontuen zenbateko osoa 669.671 eurokoa da, eta horietatik 206.124 euro inbertsioetara bideratu dituzte. Atal horretako 100.000 euro Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren lanketarako erabiliko dituzte, epai batek Plana bertan behera utzi ostean. Hain zuzen, Plan Orokorra da EAJk kontrako botoa ematearen arrazoia. Plana aurrera eramateko esleipen nagusia gonbidapen negoziatuaren bidez egiteko asmoa kritikatu du EAJk, eta baita beste lan batzuk banan emateko ideia ere. “Gure ustez, kontratu bakarrean sartu beharko lirateke, denek helburu berdina baitute”, salatu dute prentsa ohar batean. Gonbidapen negoziatuaren bidea hartuta, esleipen nagusia 60.000 eurokoa izango litzateke, asko jota. “Aurrelan bat eginda dago dagoeneko, ez gara hutsetik hasiko, eta modu hau erabilita gastuak ahalik eta gehien murriztea dugu helburu”, adierazi du Lorea Muñoz alkateak.

Bestelako inbertsioei dagokienez, udaletxea energetikoki eraginkorrago egiteko hainbat lan burutuko dituzte 48.000 eurogaz. Errepide alboetako zein kanposantuko argiteria aldatzeko, 40.000 euro erabiliko dituzte, eta 16.000 euro espaloietako irisgarritasuna hobetzeko.

# Santa Agedako dirua, Saharara bidaia laguntzeko

Abesteko, 09:00etan batuko da herritar talde bat

**MAÑARIA** M.O.

Bihar Santa Ageda eguna ospatuko da han eta hemen, eta Durangaldean hainbat izango dira koplak abesten irtengo diren taldeak. Mañarian ere herritar talde bat batuko da, 09:00etan, eta egunean zehar batzen duten dirua Saharara antolatuko den bidaiari laguntzeko izango da.

Udan ume sahararrak ekartzen dituen Hamadako Izarrak elkarteak hartuko du dirua. Izan ere, Aste Santuan Saharara joango dira euretako hamabi boluntario, Aljeriako errefuxiatuen kanpamenduetara. Proiektu bat garatzeko asmoagaz doaz gainera, hango emakumeekin batera landu gura dutena.

> Udan ume sahararrak ekartzen dituen Hamadako Izarrak elkarteak hartuko du dirua

Bihar, 09:00etan, plazan elkartu eta baserririk baserri joango dira goizean. Gero, arratsaldean, herrigunean ibiliko dira kantuan.


BIZKAIA
BIZKAIA ZUREKIN ERAIKITZEN.
Iritzia eman, parte hartu, ekin.
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
Informazioa 94 6127600

# Oletarako espaloia da inbertsiorik handiena 2017ko aurrekontuetan

Herrigunetik Ausalan enpresarainoko tartea da aurtengo helburua

**OTXANDIO** Markel Onaindia

Joan zen egueneko udalbatzarrean 2017ko aurrekontuak aho batez onartu zituzten EH Bilduk (Gobernu Taldea) eta EAJk. 2.251.000 eurotan parekatu dituzte sarrera-gastuak. Aurtengo proiektu nagusia Otxandiotik Oletarainoko espaloia (3 km) egiten hastea izango da. Espaloia egitea oletarren zein hango administrazio batzordearen azken urteetako eskaera dela argitu du Urtzi Armendariz alkateak.

Lehenengo fasea Arrabaleko zubian hasi eta Etxebarriko baserrian amaitzen da (600 bat metro). Lehen fase hori hiru zatitan banatu dute: zubitik Ausalan enpresa hasierarainokoa, enpresa hasieratik amaierara doana eta puntu horretatik Etxebarri baserrira heltzen den zatia. Aurrekontuetan gordetako 315.000 euro horiek lehenengo zati bietarako dira. Hirugarrena Aldundiko edo bestelako erakundeetako diru-laguntzen menpe dago.

Espaloia joango den bidearen jabetza Aldundiarena da. Horregatik, udalak bilatzen duena da Aldundiak bide horren eskumena eurei uztea, modu horretara, proiektua aurrera eraman ahal izateko kudeaketa errazten dela uste dutelako. Beraz, Aldundiaren erantzunaren baitan ere badago proiektua aurrera eramateko denbora. “Espaloiagaz aurten hastea espero dugu”, adierazi du Urtzi Armendariz alkateak eta “pozik geundeke aurten Ausalan enpresara heltzen den zatia egitea lortuko bagenu”. Enpresa horretarako espaloia egin gura dute tarte horretan, “susto dezente” egon izan direlako oinezkoen eta autoen artean.



EH Bilduk (Gobernu Taldea) eta EAJk aho batez onartu zituzten aurtengo aurrekontuak.

### Hoditeria azpitik

Oletarainoko espaloiagaz batera, espaloi horren azpitik askotariko azpiegiturak sartu gura dituzte. Alde batetik, ur-hornidura eta saneamendu hoditeria sartu gura dituzte enpresetara. Gaur egun ez dago mota horretako hodirik gune hartan.

Epe luzeagora begira, Oletarainoko espaloiaren azpitik ur zikinen hoditeria sartu gura dute, Oletako ur zikinak Otxandioko sare nagusira lotzeko.

## Santa Ageda abestera irtengo dira Caritasentzat dirua batzeko

**ATXONDO** J.D.

Apatako San Pedro Apostoluaren parrokiak antolatuta, herritar talde bat Santa Ageda koplak abestera irtengo da zapatu honetan. Batutako dirua beharrizanean daudenei laguntzen dien elkarte edo erakunderen bati ematen diote urtero. Aurten Caritasentzat izango da batzen duten guztia.

Bihar, 14:30ean jarri dute hitzordua Apatako udaletxe kanpoan. Apatako herrigunean kalerik kale ibiliko dira lehenengo, eta, ondoren, inguruko baserrietara joango dira. “Sei bat orduz ibiltzen gara abesten”, azaldu du urtero koplak abestera irteten de taldeko Xabier Azkaratek.

Guztira, batez beste, 25 bat lagun batzen dira, baina gura duten denentzat atea zabalik dutela gogoratu dute antolatzaileek. “Giro onean ibiltzen gara eta egun-pasa polita izaten da”, dio Azkaratek.

# Ertzaintzarentzat “lehentasuna” dira herriko lapurreta kasuak

Ertzainak herriko tabernari eta ostalariekin batu dira azalpenak emateko

**OTXANDIO** J.D.

Otxandioko 20 bat ostalari eta udal ordezkariak ertzainekin batu ziren astelehenean. Kultur etxean egindako batzar irekian, iaz herrian izandako lapurreta kasuak izan zituzten berbagai.

“Egoera atipikoa zela onartu zuten, inoiz ez dutela antzerakorik ikusi”, azaldu du Urtzi Armendariz alkateak. Ertzainek emandako datuen arabera, iaz 13 bider joan ziren Otxandiora lapurretengatik, eta aldi bakoitzeko hiru-lau lapurreta izan ziren.

Egoera horren aurrean, “pazientzia eta konfiantza” eskatu zuten, Armendarizek gogoratu duenez. “Hainbat ikerketa irekita dituztela azaldu zuten, eta Otxandioko lapurretak amaitzea dela euren lehentasuna, helburu nagusi moduan dutela. Epe jakinik barik, baina berandu baino lehen emaitzen bat izatea espero dutela esan zuten”, argitu du. Danoena tabernako Javi Axpe izan zen atzoko batzarrean egon zenetako bat. Azken bost hileetan hiru bider sartu dira tabernara eta beste saiakera bi ere egin dituzte lapurrek. “Eurentzat lehentasuna zela esan ziguten. Esaten zuten moduagatik, zerbaiten atzetik badabiltzan itxura hartu nuen. Konfiantza zutela zirudien. Ikusiko dugu”, azaldu du.



Lapurreta asko Artekale kaleko merkatuetan gertatu dira.

## Dispertsioa amaitzeko eskatu du udalbatzarrak

Senideak “oinaze gehitu batera” zigortzen ditu

**ZORNOTZA** J.D.

EH Bildu, EAJ eta Hiri Ekimenaren babesagaz Giza Eskubideak “errespetatzea exijitzen” duen mozioa onartu zuten joan zen barikuko udalbatzarrean. PSE- EEk, aldiz, kontra bozkatu zuen.

Mozio honegaz udalbatzarrak dispertsio politikaren “berehalako desaktibazioa” eskatu du. Onartutako testuan dispertsioak “ez duela inoiz zentzurik izan” eta senideak eta lagunak “zigortzen” dituela aipatzen da.

Dispertsioaren ondorioz, “ehunka izan dira kalte fisiko eta materialak”. Presoak bisitatzera egindako joan-etorriek “16 senideren heriotza” eragin dutela salatu dute. Ildo horretatik, gogora ekarri dute orain hilabete batzuk Huelvako espetxetik bueltan eskualdeko hainbat senidek Briviescan izandako istripua.

## Barandak ipini dituzte, segurtasunagatik

**GARAI** M.O.

Herriko plaza inguruetan hainbat baranda ipini ditu udalak, oinezkoen segurtasuna hobetzeko asmoz. Plazako eskaileretan edota aldapetan kokatu dituzte barandak, adibidez. Horrela, batez ere pertsona nagusiak ez jausteko lagunduko dute barandek. Udalak 9.900 euro erabili ditu obra garatzeko. Herriko irisgarritasun planaren barruan kokatzen da, eta, momentuz, lehen fasea eraman dute aurrera.

Irisgarritasun planaren barruan kokatzen da, eta, momentuz, lehen fasea eraman dute aurrera

# “Chiosen aurrez aurre ikusi ditut Siriatik ihesi telebistan ikusitako errefuxiatuak”

Zaporeak proiektuaren bitartez, Chiosen (Grezia) egon da Alfredo Alonso, Abadiñon bizi den nafarra



**ELKARRIZKETA** A. Basauri

**Urtarrilaren 2an abiatu zen Greziako Chios irlara Alfredo Alonso Irisarri (Iruña, 1968). ‘Zaporeak’ proiektuagaz bat eginda —200 lagun joan dira dagoeneko—, 22 egun egin ditu hango Souda errefuxiatuen kanpamenduan. Batez ere, siriarrak daude bertan, baita Irak eta Afganistanetik ihes egindakoak ere. Beste 27 naziotako errefuxiatuekin bizikide dira.**

**Nola sortu zitzaizun Chiosera joateko aukera?**
Boluntario lana egiteko gogoa izan dut beti, eta errefuxiatuen gaiarekiko nahikoa sentsibilitate izan dut. Duela hiru hilabete enpresa itxi eta lanik barik geratzean, horretarako aukera ikusi nuen. *Gaua* proiektuaren barruan, Bilbon, etxebakoekin gaua igarotzen hasi nintzen. Gero, *Zaporeak*en egitasmoa ezagutu nuen. Chiosen jatekoa ematen diete errefuxiatuei; egunero 1.200 errazio banatzen dituzte.

**Nolako esperientzia izan da?**
Gogorra. 22 egun topera ibili gara. Egunero 10 ordu lanean. Baina, alde emozionala da gogorrena: Soudara zu zeu zoaz eta zuk zeuk ematen diezu janaria; errefuxiatuen aurpegia, bizi duten egoera ikusten duzu. Nola jatekoa hartzeko luzaroan ilaran egon behar duten. Bustita, txankletekin, oinutsik... Oso gogorra egin zitzaidan. Gainera, euria, elurra, zero azpitiko tenperaturak... izan genituen. Telebistan ikusitakoagaz zoaz gainera, zelanbaiteko aurreiritziagaz.

**Aurrez aurre bizi duzu egoera.**
Chiosen aurrez aurre ikusi ditut Siriatik ihesi telebistan ikusitako errefuxiatuak, familiak; haien istorio eta bizipenak. Omar, Yasmin, Nurah, Mamadou, neure alabaren adinekoa den Roudy... Beraien drama, tragedia, ezagutu dut. Emozionalki oso gogorra izan da. Sukaldean 17:00etan amaitzen genuen, eta apartamentura edo eurekin joateko aukera genuen. Gehienetan han geratzen ginen. Umeekin, batez ere. Sanferminetako entzierroa, danborrada egin genituen, soka-saltoan jolastu... Irribarretxoa atera gura genien.

**Hori da esperientzia honen alderik positiboena?**
22 egunean egindako lanaren fruitua momentuan ikustea izan da positiboena. Janaria ateratzeko, dena ematen genuen, egunero, eta jakiak banatzean beraien aurpegia ikustea sari txiki baten modukoa zen. Egunero otordu duin bat izaten dute. Lana maitasunez egitea da *Zaporeak*-en arima; jakiak maitasunez prestatu eta banatzea. Horretan saiatu naiz, irribarretsu egoten, atsegina izaten. Batzuek hori izango zuten irribarre bakarra.

**Han bizi dutenaz jabe gara?**
Ez dut uste. Urrun ikusten dugu. Saharan ere egon izan naiz, egoera bortitza da han ere. Baina, ohituta daude, zelanbait. Zenbait belaunaldik ezagutu dute hori. Gu bezalako jendea da, Siria, Irak edo Afganistangoa, eta horrek hunkitu ninduen gehien Chiosen. Medikuak, botikariak, irakasleak... ezagutu ditut. Euren herrietan bizimodu normala zeukaten; pozik bizi ziren, eta, bat-batean, kanpin-denda batean lo egiten dute; hotzagaz, lokatzagaz, senideak bidean utzita... Baliabide ekonomikoak dituzte eta mafiei ordaindu behar izan diete ihes egiteko. Kolpe latza. “Dirua dudan arren ez didate arroparik saldu gura, errefuxiatua naizelako”, zioen batek. Herrira itzuli gura dute, ez beste inora.

> *“Gogorrena agurra izan da. Ez nekien zer esan. Ez dakit zer gertatuko den haiekin”*

**Zein bizi baldintza dituzte?**
ACNURen bitartez mantak dituzte, gutxienez. Baina, Souda ez zegoen kanpamentu bat izateko prestatuta. Errefuxiatuak etortzen hasi ziren, kokatzen, eta egun, milaka daude. Baina, ez dute azpiegiturarik. Etorriberriak hondartzan daude. Ur berorik ez dute, komun gutxi batzuk... udan bero handia pasatzen dute, eta neguan hotza. Zaila da duintasuna mantentzea.

**Zerk harritu zaitu gehien?**
Asko hunkitu nau errefuxiatuen atzean dauden drama pertsonalak ezagutzeak. Almustafa. Oso jatorra, irribarretsua. Mugikorragaz grabatzen ikusten nuen, eta ezagutu nuenean jakin nuen hiru seme-alabak, emaztea eta amaginarreba galdu zituela etxea bonbardatu zutenean. Mamadou. Tabakoa saltzen zuelako Estatu Islamikoak buruan tiro egin eta gorputz erdia paralizatuta duena. Bi hilabetera esnatu zen Turkian, erietxean, eta, Nurah emazteak, haurdun, hiru seme-alabekin, Turkia erdia zeharkatu zuen oinez beragaz batzeko.

**Irtenbiderik ikusten duzu?**
Ditugun agintariak, Europan dugun elite politikoa ikusita, nahiko ezezkorra naiz. Errefuxiatuen jatorrizko herrialdeetako gatazkak konpondu behar dira. Ez da afera bukatuko, baina etxera bueltatu gura dute. Ezin dugu ahaztu heriotzatik ihesi datozela. Ezin diegu sarrera ukatu. Sirian, Afganistanen, Iraken... dago gakoa. Baina, interes handiak daude. Gogorrena agurra izan da. Ez nekien zer esan. Ez dakit zer gertatuko den haiekin.

**Bueltatuko zara?**
Gura nuke. Atenasen 20.000 errefuxiatu daude. Lan asko dago eta boluntario gutxi. Boluntario asko euskaldunak dira; Atenasen %25. Harro egotekoa da, europear lez lotsa sentitu arren.






# Organikoa osorik batzen hasi gura du Amankomunazgoak

**EH Bildu eta Herriaren Eskubidearen botoekin onartu dute 2017ko aurrekontua**



Joan zen eguenean egin zuten Amankomunazgoko osoko bilkura, Astolan.

**DURANGALDEA** M.O.
Gaur egun, organikoaren kontainer marroian ezin dira bota esnekiak edota okela eta arrain zatiak. Amankomunazgoak uste du debeku horregatik egiten duela jende batek atzera eta ez duela kanpainan parte hartzen. Eta Aldundiari hori posible egin ahal izatea eskatu diote, osorik batzea, beraz. 2017rako aurrekontuko erronketako bat da; EH Bildu eta Herriaren Eskubidearen aldeko botoekin eta EAJ eta Abadiñoko Independienteen kontrakoekin onartu dute 6 milioi euro inguruko aurrekontua. Aitor Lopez presidenteak (EH Bildu) adierazi du ez dela hondakinen bilketa zerbitzuan eman gura duten aldaketa bakarra. Izan ere, kamioiekin zaborra pisatzen hasi gura dute, hobeto antolatu ahal izateko.

### Zati bat, erremanentetik

Bestalde, gizarte zerbitzuen kartera garatzen dabiltza, bestelako instituzioekin elkarlanean. Adibidez, neguko aterpeari epea luzatu gura diote, negukoa soilik ez izateko. Aldunditik 150.000 euro gutxiago jasoko dituzte gizarte arlorako, eta, ondorioz, erremanenetik hartuko dute dirua, udalei karga handiagoa ez suposatzeko asmoz. Julia Perezak (HE), horretan "egindako esfortzua" errekonozitu du.

Hala ere, Durangok eta Otxandiok gehiago ordaindu beharko dute, eta, horregatik, EAJk eta AIk diote gobernuaren saiakera ez dela nahikoa.

Joseba Mujika jeltzaleak berdintasun zerbitzua sortzea proposatu du, baina, gobernuaren ustez, eskumena hartu aurretik zer egin daitekeen aztertu beharko litzateke.

## Garaitarren kirol zerbitzuetako tarifak igo dituzte

**BERRIZ** M.Z.
Orain arte ez bezala, hemendik aurrera, Berrizko kirol zerbitzuak erabiltzen dituzten garaitarrek berriztarrek baino gehiago ordaindu beharko dute. "Garaitarrak ezin ditugu berriztar gisa ulertu", adierazi zuen azken osoko bilkuran Orland Isoird alkateak.

Beraz, hemendik aurrera, garaitarrek gainontzeko herrietako biztanleek duten tarifa bera ordaindu beharko dutela jakinarazi zuen alkateak.

## Asto probetan izena emateko zita, zapatuan

**MALLABIA** J.G.
Mallabiko Pisu Neurtuko Asto Proben 10. sarian parte hartu gura duten probalariei zuzenduta, izena emateko hitzordua jarri dute. Interesdunak, bihar, zapatua, Jubiletxean batzeko deia egin dute antolatzaileek, 19:00etan. Pisu Neurtuko Asto Probak otsailaren 17an, 18an eta 19an jokatuko dituzte. Biharko batzarrean erabakiko dute egun horietako ordutegia zein izango den.

## SEI HANKAKO MAHAIA

**JULIAN RIOS**
SQ-2D



### Ikusi ezin dena ikustaraztea

Orain egun gutxi, hauxe plazaratu zuten zenbait komunikabidek: minbiziaren gainean 2020ari begirako zientzialarien aurreikuspenak bete egin ziren 2015ean. Espezialistek dioskue faktore batzuk kontrolatu daitezkeela, eta minbiziak sortutako heriotza-tasaren herena saihestu daitekeela.

Badira beste gaixotasun batzuk, ezezagunakoak, baina gaixoak ezgaitzen dituztenak. Sentsibilizazio Zentralaren Sindromeak barne hartzen ditu hauek: fibromialgia, neke kronikoa, askotariko sentsibilitate kimikoa eta hipersentsibilitate elektromagnetikoa.

Ohiko arrisku-faktoreak: tabakoa, alkohola, sedentarismoa, elikadura eta poluzioa dira faktoreetako batzuk. Guztiak ere, neurri handi batean, geuk kontrolatzeko modukoak.

Begiak zabaldu eta jabetu behar dugu zenbat egin dezakegun osasuntsu egoteko. Kontua ez da bakarrik erretzeari uztea, kirola egitea eta alkohola murriztea. Esaterako, gure elikagaiei gehitutako produktu artifizialei buruz informatu beharko genuke. Izan ere, askok ez dute batere balio nutrizionalik gure organismorako. Eta elikagai osasuntsu eta elikagarriak exijitzen hasi beharko genuke. Bestetik, zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak modu egoki eta arduratsuan erabili beharko genituzke. Izan ere, gure etxeko poluzio kimikoak eta gure aparatu elektronikoen poluzio elektromagnetikoak agerian utzi dute eragin zuzena dutela gaixotasun askoren garapenean.

**Erredakzioan itzulia*

## DURANGALDEA ASTEON

### Herri batzarrera deitu du Gure Esku Dago elkarteak

**ABADIÑO >** Gure Esku Dagok herri batzarra egingo du otsailaren 9an, 19:00etan, Zelaietako Txanporta kultur etxean, aurten aurrera eraman gura duten herri galdeketari buruzko gaiak lantzeko. Sinadura bilketaren ostean herri galdeketa egiteko erabakia berrestea eta galdera erabakitzeko prozesua azaltzea dira puntuetako bi.

### Bidesarien kontrako plataforma, Abadiñon

**ABADIÑO >** AP-8ko bidesariaren kontrako plataforma Abadiñoko San Blas azokan egongo da sinadurak biltzen. "Bidesari diskriminatzaile honi bukaera emateko lan egiten jarraituko dugu. Horregatik, jendeari dei egiten diogu euren iritzi eta iradokizunak gugaz partekatzeko", adierazi dute plataformako kideek.

### Mutilak, identitatea eta sexualitatea, berbagai

**ZORNOTZA >** Zornotzako Berdintasun Sailak aurrera eramango du 13-18 urte bitarteko mutilei zuzendutako tailerra. Izen-ematea otsailaren 8ra arte irekita dago. Gazte Informazio Bulegora joanda, goizez zein arratsaldez, edo *berdintasuna@amorebieta.eus* helbidera idatziz izena eman daiteke.

## IRITZIA

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

### Piramide bat Elorrion

Umetan bizitakoen oroitzapenek bizi osorako diraue. Denboraren poderioz amatatu beharrean, zahartzaroarekin, intentsitate handiagoz jatorku haurtzaroa; hasierako memoriaren sugarra da, bizitzaren amaierara hurreratu heinean, amatatzen dan azkena. Gaztea naz oraindik eta, zientziaren arabera, nire garunak oraindik zelanbaiteko malgutasuna euki behar dau, eta horri esker bizitzako bi esperientziaz idazteko moduan nago; bat haurtzarokoa, bestea askoz barriagoa.

Gogoan daukat umetan behin edo behin etxeko lanak egin barik eskolara joan izana. Denbora pasatzearen ondorioz okertutako inpresioa izan daiteke, baina nire oroitzapena da, estudiatzeko denbora gutxi eukiko nebala larregiko eskolaz kanpokoen ondorioz: musika, judoa, ingelesa, eta abar. Larritasun une haretan, normalena zan arnasari isilik eustea, irakaslearen begi arakatzaileen aurrean oharkabean pasatzen saiatzeko. Egonezin harek berriro ere oldartzen nau Elorrioko gobernu taldeak datozen urteotarako planifikazioa azaltzen dauan bakoitzean. Hauteskundeetan emondako hitz handiak hitz-mantra batez estaltzen dabe: "obra faraonikoa". Ez dabe zehazten zeintzuk diren "obra faraoniko" horreek, baina zantzu guztiak garoez Fytasako kiroldegi berrira eta Pullako industrialde berrira.

Herritarren erabakiz oposizioan gagoz agintaldi honetan, eta hortaz, irakasle-rola egokitzen jat. Eurak arbelera eramatea dagokit, azal deiguen zeintzuk diran herritarren arazoen aurrean daukiezan konponbideak. Baina aitortu beharra daukat kostatu egiten jatala irakasle gogorra izatea. Arnasari eusten ikusten dodaz, emaitzak azaldu gura barik, estualdian sartuta. Euren azalean jarri eta proiektu oso konplexuak daukiez aurrean, eta eurek dauken sentsazioa horixe bera da… faraoi baten obraren aurrean dagozala.

Mikel Arruabarrena Azpitarte (Elorrioko EAJ)

**Gorka Bidaurrazaga, Andoni Ormaetxea, Ibai Arrizabalaga, Iñaki Ugarteburu eta Aitor Mendilibar** | The Wilsons



Unai Urizar



Ziortza Bilbao

# *"Etxean bezala sentitzea gustatzen zaigu: entzuten dauden guztiak ezagutzea"*

Abadiñoko San Blasetan, txosnaguneko karpan joko du The Wilsons Durangaldeko boskoteak, bihar

> **MUSIKA** Itsaso Esteban

**Zelan sortutako proiektua da The Wilsons?**

**Aitor Mendilibar:** New Yorken bizi naiz duela urte batzuk, eta 2014ko urriaren 1ean, Miamin zegoen Andoni eta Ipar Amerikatik oporretan zebilen *Potti* bisitan etorri zitzaizkidan. Nire etxean hasi ginen jotzen, eta musika lokal bat alokatu genuen gero. Hamar egun egon ginen New Yorken elkarregaz, eta horrela sortu zen *Remember times* The Wilsons taldearen lehenengo kanta. Bizi naizen etxea Wilson Avenue-n dago, eta kale horren omenez ipini genion taldeari izena, bideoklipa grabatu genuen... Abendu hartan, lau hilerako etorri nintzen, eta orduan osatu genuen boskotea eta atera genuen lau kantako diskoa. Oso gogoan dut, bestalde, hasi ginenean oso estresatuta nengoela New Yorken, eta egundoko bizia eman zidala hauekin elkartzeak.

**Zelan sortzen da distantzian?**

**A.M.:** Hona etortzen naizenetan asko aprobetxatzen dugu, eta beraiek ere asko etortzen zaizkit bisitan. Internet bidez edo telefonoz ere kontaktuan gaude.

**Ez da zaila atzerrian bizi eta harreman hori mantentzea?**

**A.M.:** Euskal Herrira bueltatzeko arrazoi nagusia izaten da taldea: natorrerako kontzertuak lotzen ibiltzen dira lau hauek.

**Denok ere urteak daramatzazue musika taldeetan jotzen. Zein taldetan jo izan duzue?**

**Ibai Arrizabalaga:** Ni Kruders, Iheskide, eta Puto Bastardo taldeetan eta hainbat tributo taldetan ibili naiz, eta orain Bultz! proiektuan dihardut...

**A.M.:** Andoni eta ni Disorders taldean ibili ginen, *Potti* Riot Kids eta Infernuko panpinak taldeetan...

**Iñaki Ugarteburu:** Nigaz Social Distortion taldean ere ibili zen *Potti*, eta orain Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek taldean ere jotzen du.

**Belaunaldi desberdinetakoak zarete. Musikazaletasunak elkartu zaituzte?**

**I.A.:** Egia da belaunaldi desberdinetakoak garela, baina beti ibili gara antzeko inguruetan.

**I.U.:** Adin desberdina daukagun arren, gertukoak izan gara beti.

**A.M.:** Andonik eta nik umetatik ezagutzen dugu elkar, eta Durangoko institutuko sasoian hasi ginen inguruko herrietako musikazaleak ezagutzen.

**I.A.:** Musikak elkartu gaitu.

**Zelan joan zen Zaldibarko kontzertua aurreko zapatuan? Berezia izan zen?**

**I.U.:** DBH sasoiko lagunak ditugu zaldibartar asko, eta atzerrian dabilen *Mendi* ere bueltatuta, emozionatuta geunden.

**I.A.:** Golfo batzuk dira zaldibartarrak! (barrez). Harreman oso naturala daukagu eurekin.

**A.M.:** Nik uste, gainera, Zaldibarren maitasun berezia hartu diotela taldeari.

**Pozik zaudete eskaini zenuten zuzenekoagaz?**

**A.M.:** Bai. Barikuan Mañariko U2 tabernan jo genuen, eta gustura atera ginen handik ere. Zaldibarko kontzertuaren aurretik beste entsegu bat gehiago baino ez genuen egin, eta espero baino hobeto atera zen.

**Taberna eta gaztetxe giroko kontzertuak dituzue gustuko.**

**I.U.:** Bai, etxean bezala sentitzea gustatzen zaigu, entzuten dauden guztiak ezagutzea.

**A.M.:** Orain arte taberna txikietan eta gaztetxeetan jo dugu. Alde horretatik, biharkoa desberdina izango da. Karpan joko dugu, eszenatoki altu batetik...

> *"Biharkoa desberdina izango da; karpan, eszenatoki altu batetik joko dugu"*

**Zer errepertorio eskainiko duzue Abadiñon?**

**I.U.:** Gure zortzi kantak eta gustuko ditugun zazpi bertsio eskainiko ditugu.

**I.A.:** Zuzenean entzuteko ezohikoak diren bertsioak aukeratu ditugu. The Clash taldearen *Straight to hell* joko dugu, adibidez, eta baita Red Alert taldeak Beatles-en *Here comes the sun* kantari egindako bertsioaren moldaketa ere, edo Vanilla Muffins-en bertsioren bat...

**Aipatu dituzuen horiek 80ko eta 90eko hamarkadetako taldeak dira. Zuen kantetan ere nabaria da eragin hori?**

**I.A.:** Bai, baina egin dugun azken kantak, esaterako, ez dauka punk rock klasikoaren ikutu hori.

**A.M.:** Atera genituen lehenengo lau kantak nahiko soilak direla esan daiteke. Azken lau kantak gehiago landu ditugu, eta estilo desberdinak jorratuz, gainera. Gehiago esploratzen hasi gara, eta ildo horretatik jarraituko dugula esango nuke.

**Ez duzue mugarik jarri gura.**

**A.M.:** Ez, entzun ere punkaren eta rockaren inguruan dagoen aniztasun guztia entzuten dugulako. Horrek badu eragina gure musikan, eta uste dut gero eta gehiago igarriko dela.

**I.U.:** Gure kantak ingelesez izateak ere badu lotura horregaz: taldea sortu den gure bizitzako uneari lotuta dago; New Yorkeko bisita horiei.

**A.M.:** Edozelan ere, The Wilsons *flow*-ari jarraitzen dion taldea da, gauzen joera naturalari jarraitzen diona, eta ez dugu alboratzen etorkizunean euskarazko kantak idaztea ere.

**Zeri buruz diharduzue kantetan?**

**A.M.:** *Remember times* kantan institutu garaian elkar ezagutu genuenekoa eta handik hainbat urtera elkartu garenekoa kontatzen dugu. Hasierako kantarik gehienak dira horrelako sentipenei buruzkoak: elkar zenbat maite dugun adierazten dugu letretan. Berrienak politikoagoak dira: errefuxiatuei buruz dihardugu *Break down the walls* kantan, ilusioa berreskuratzeari buruz *Hopeless cowboy*-n, eta AEBetako kartzeletako egoerari, arrazakeriari eta poliziaren bortizkeriari buruz beste bi kantetan.

**Denbora gehiago hartu eta Euskal Herrian zehar bira luzeago bat egiterik ez zenukete gura?**

**A.M.:** Bai, baina nik oraindik ez dakit noiz bueltatuko naizen. Edozelan ere, The Wilsons-en ametsik handiena AEBetan jotzea da. Proiektua han hasi zen, eta zaila dela jakin arren, gurako genuke bira txiki bat egitea han. Bestalde, udarako lau kanta berriekin diskoa kaleratzea gurako genuke.


Miren Agur Meaberen 'Identitate poetiko bat norabide' hitzaldiagaz hasiko dute aurtengo edizioa Durangoko Museoan.

# Bidaia izango dute ardatz 'Hitzez eta Ahotsez' ekimen literarioan

## Miren Agur Meaberen hitzaldiak zabalduko du ekimena datorren barikuan

**> LITERATURA** Aimar Esteban

Literatura hitzaldi eta solasaldiak martxan jarriko dituzte aurten ere euskaltzale talde batek antolaturiko ekimen honetan. Bidaia izango da gai nagusia edizio honetan. Eta zentzu zabalean jorratu gura dute gaia. "Era askotako bidaiak daude, bizitza bera ere, eta idazle askok lantzen dute. Beraz, testuak aukeratzeko gai zabala da", azaldu du ekimenaren antolatzaileetako Marisa Barrenak.

Literaturzaleen ekimen hau Miren Agur Meaberen hitzaldiagaz hasiko da datorren barikuan, otsailak 10, 19:00etan. "Aurreko urteetan bere testuak irakurri ditugu, eta gustuko dugun obra dauka. Lehenengo momentutik laguntzeko prest agertu da", adierazi du Barrenak. Durangoko Arte eta Historia museoan finkatu dute hitzordua. Idazle lekeitiarrak, *Identitate poetiko bat norabide* hitzaldia emango du.

Ekimenari amaiera ematen dion jendaurreko irakurraldia maiatzaren 5ean izango da. Bitartean, literatur solasaldiak egingo dituzte Durangoko Bibliotekan. Antolatzaileentzat, "tertulia hauek parte-hartze zuzena bilatzen dute, literaturara hurbiltzeko solasaldiak dira". Martxoaren 9an eta apirilaren 6an egingo dituzte literatur eztabaidak, aurretik irakurritako testuak berbagai izanda.

Aurreko urteetan bezala, Plateruenean irakurraldi zabal bategaz amaituko dute. Maiatzaren 5eko irakurraldian parte hartu gura duten lagunek *hitzezetaahotsez@gmail.com* helbide elektronikoan eman dezakete izena. Aurreko urteetan ekitaldi honetan parte hartu dutenek ez dute berriro izena eman beharrik, parte-hartzaileen zerrendan daudelako. Iaz, 250 lagunek parte hartu zuten ekitaldian. Aurten ere, sortzaile ezezagunek tarte berezia izango dute errezitaldian. "Aukera eman gura diegu zerbait kontatu gura dutenei", adierazi du antolatzaileak. Partaideek egokitutako edo sortutako testuen irakurketa egin ahal izango dute. Kantek, dantzek eta antzezlanek ere lekua daukate ekitaldi honetan.

Literatura bultzatu gura dute Durangaldean. "Eskualdean euskal literaturara hurbiltzea eta gozatzea bilatzen dugu".

# 'Armairuan', Elorrioko otsaileko dokumentala

## Otsailaren 8an izango da emanaldia, 19:30ean

**> ZINEMA** Itsaso Esteban

2015ean Herbeheretan ekoitziriko *Armairuan* filma emango dute otsailaren 8an, 19:30ean, Elorrioko Iturri kultur etxean. Ingelesezko eta txinerazko jatorrizko bertsioa eskainiko dute, gaztelaniazko azpitituluekin. Sophia Luvará italiarrak zuzenduriko dokumentala da, eta Andy eta Cherry gazte txinatarrak dira protagonistak.

Andy Shangain bizi den arrakasta handiko arkitektoa da. Gizonak gustuko dituen arren, familiaren "ohorea" bere sentipenen eta askatasunaren gainetik jarrita, emakume bategaz ezkontzen da. Cherry homosexuala den mutil bategaz ezkonduta dago, eta ume bat adoptatzera doaz. Gazte biek beraien askatasunaren eta kulturalki ezarritako estereotipoen talka zelan bizi duten kontatzen du dokumentalak.

> Sophia Luvará italiarrak zuzenduriko dokumentala da 'Armairuan', Txinan kokaturiko istorioa

Ohiko zinema-aretoetan ikusteko aukerarik izaten ez den zinema dokumentala ikusteko aukera eskaintzen du, 2009. urtetik, Hileko Dokumentala izeneko ziklo honek, Elorrion.


Sexualitatea askatasunez bizitzeko zailtasunak ditu hizpide filmak.

**GEURE DURANGALDEA**

**GARAZI MUGARZA MARKINA**
Ikaslea



### Ultrakomunikatzen?

Neure buruari galdetzen diot ez ote diogun gero eta beldur patologikoagoa bakardadeari. Honezkero ez dakigu bakarrik gaudenean zer egin. Leku publikoetan egin ezazue proba, altxa begiak eta izan hango miseriaren lekuko: horrenbeste jende etengabeko mezu trukea bermatzen duen aparatu banarekin eskuetan, erantzunik eskatzen ez duten mezuei ere fikziozko algarak bidaltzen dizkieten automata absolutu bihurtuta. Ez dira asko begietara begiratzen ausartzen direnak. Hala ikusten dituzu denak, eta halakoa zara zu.

Nork daki azaltzen zelan sentitzen den emotikonorik erabili gabe? Izena jartzen diogu baina izanik ez. Igual izango da sentitutakoa kokatzen eta kudeatzen jakin ez dugulako, eta urduritu egiten gaituelako esatear baina esateke dagoenak. Pantaila bidezko komunikazioaren segurtasun-esparruak estaltzen du gabezia hori.

Atzerapausoak ere gertatzen dira, gutxi ezagutzen ditut erantzun gabe utzitako mezuei azalpen bat zor diela uste ez dutenak. Ez dira interesgarriak isiluneak eta hutsuneak? Bizi osoa daramagu elkarrekin eta ez dugu ezer ikasi. Estipulatuta dagoena, izan behar duguna bilakatzen gara; ausartak, intimitaterik apenas dutenak. Ba, tira, niri gustatzen zait lotsatzen den jendea.

Parekoa sumatzen duzunean ezpainak umeltzen, edo poltsikoko txanponak zenbatzen, edo inorekin egoteko aldarterik gabe, edo hitz-erdika, edo bere perfumea oroitzen duzunean edonon, edonoiz eta kasualitatez. Horrek guztiak esaten du edozein mezuk baino askoz gehiago.






# INGURUMEN GEHIGARRIA




ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA BIRZIKLAGARRIAK

cemosa
CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

www.soul-cemosa.es

CEMOSA Autonomia, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 946 231 717 - Faxa: 946 231 799

# BERDEAGO EGITARAUA ENERGY

## OTSAILAK 3, barikua

### HITZ BERDEA

**09:00-13:00**
**Energiaren kudeaketa eta Smart City-ak.**
· Energiaren kudeaketaren garrantzia enpresa txiki eta ertainetan. **Aprobasge.**
· Smart City-ak hurbilduz. Aukera bat, behar bat. **Conpybasque.**
· Nire energiak zenbat balio duen jakin nahi dut? **Stechome.**

**12:30**
**Sari banaketa***
· III. Bideo lehiaketa “Zure janaria ez da hondakina”. **Udalsarea 21.**

**17:00-19:00**
**Isolamendua eta birgaitze energetikoa**
· Birgaitze energetikoa eraikuntzaren alde pasiboan. Patxi Padura, **Efeuve fatxada aireztatuak**.
· Lastozko eraikuntzaren eboluzioa: Ekoizpen prozesuen industrializazioa eta produktuaren ziurtagiriak. **Jose Luis Veiga, Ecopaja**.
· SATE sistema eta bere aukera ezberdinak. **Tabira Color**.

### ZIRKULU BERDEA

**09:30-12:30**
Nola nabarmendu bertako iraunkortasun ekimen arrakastatsuak Euskal aitormenaren esparruan. **Udalsarea 21.***

**11:00-13:00**
DOMOa eraikitzeko tailer praktikoa. **UKnatura.**

**17:00-20:00**
**Ludoteka.**

## OTSAILAK 4, larunbata

### HITZ BERDEA

**12:00-13:30**
**Geotermiaren potentziala eta hazkundea alternatiba energetiko gisa.**
· Geotermia eraikuntzan. **Jose Seara eta Josu Salazar.**

**17:00-19:00**
**Osasuna eta bioeraikuntza.**
· Bioeraikuntzaren 8 gakoak: etxe osasuntsu batean bizi gaitezen. **Espainiako Baubiologia Institutua (IEB).**
· Osasuntsuagoa, erosoagoa, kalitatezkoa eta kontsumo gutxiagokoa. **Gorka Uriarte, Onahus.**
· Etxeko konposta, etorkizuneko kudeaketa. **Escardena-Aerobin.**

### ZIRKULU BERDEA

**11:00-12:15**
Etxe osasuntsua erradiestesiari esker. **Iñaki Garijo, Eureka Reziklarte.**

**12:30-14:30**
Hidrogenoa, oraina eta etorkizuna. **Luis Sutil, Maristak ikastetxeko irakasle ohia.**

**17:00-20:00**
**Ludoteka.**

## OTSAILAK 5, igandea

### HITZ BERDEA

**11:30-14:00**
**Energia berriztagarriak eta eraginkortasuna**
· Aireztapena beroa errekuperatuz. Etxe pasiboetan erabilitako aireztapena. **Ruben Amparan, Lansolar ingenieros.**
· Sistema hibridoak geotermia eta fotoboltaikoarekin. **Aerotermia, solar termikoaren alternatiba gisa. E-NER.**
· Energia berriztagarriak etxebizitzan: Zein sistema aukeratu kasu bakoitzean. **Josu Salazar, Ekidom.**
· Etiketatu energetiko berria kondentsaziozko biomasa galdaretan. **Biocurve.**

**17:00-18:30**
**Energia biltegiratzeko bateriak eta mugikortasunaren elektrifikazioa.**
· Auto elektrikoak eta autokontsumorako eguzki bidezko energia fotoboltaikoa: Tesla kasua. **Josu Salazar, Ekidom.**

### ZIRKULO BERDEA

**11:00-12:15**
Zelula termoelektrikoak, Peltier-Seebeck efektuak. **Luis Sutil, Maristak ikastetxeko irakasle ohia.**

**12:30-13:45**
Maglev, lebitazio magnetiko-kuantikoa. **Luis Sutil, Maristak ikastetxeko irakasle ohia.**

**17:00-20:00**
**Ludoteka.**

*** Ekintza hauek Landako Elkartegian burutuko dira.**


Pintura eta dekorazio dendak
TABIRA COLOR
Montorretas Industrialdea, 9-F Pabilioia
Tel. 94 621 79 11
48200 DURANGO
Novia Salcedo, 26
Tel. 94 439 86 79
48012 BILBAO
Juan Calzada, 107
Tel. 94 625 67 59
48300 GERNIKA
San Inazio, 49 etxabea
Tel. 94 613 41 99
48700 ONDARROA
Egurra birgaitzeko eta tratatzeko produktuak
TERMOK8
gruppo IVAS
ESPEZIALISTAK ERAIKINEN BIRGAIKUNTZAN ETA ISOLAMENDU TERMIKOETAN

# BERDEAGO EGITARAUA NATURE

## OTSAILAK 10, barikua

### HITZ BERDEA

**12:00-13:00**
Garapen jasangarrirako finantza etikoak. **Oikocredit.**

**17:00-19:00**
**Uraren garrantzia osasunerako.**
· Zer dago txorroteko uraren atzean? **Matilde Lodner Sack, Uraren tratamendu naturala.**
· Antioxidatzailerik eraginkorrena: ur hidrogenatua. **Pablo Tirado, Mi tienda ecológica.**

### ZIRKULO BERDEA

**11:00-12:15**
Uler eta erraztu ezazu zure argindarraren fakturan. **Goiener**

**17:00-20:00**
**Ludoteka.**

## OTSAILAK 11, larunbata

### HITZ BERDEA

**11:20-14:00**
**Elikadura eta laborantza ekologikoa**
· Oliba olioa dastatzen ikasi eta ez hutsik egin erosketan. **Jacoliva**
· Josenea. Landare usaintsuen laborantza eta proiektu soziala. **Txus Cía**
· Ahuntz esnez eginiko gazta ekologikoak. **Josefine Rieger, Aldaba Zahar.**

**17:00-19:00**
**Osasuna eta ongizatea**
· Medikuntza naturaleko azken aurkikuntzak. **Agua Kenko.**
· Ongizatea, osasuna eta oreka aktibatzen duten irudiak. **Mercé Cervantes, Holosintesis.**
· Eremu elektromagnetikoen eragina osasunean. **La Cama Azul.**
· Ioi negatiboak osasunaren zaintza iraunkorrerako. **Javier Lorente, ADN RAM.**

### ZIRKULU BERDEA

**11:30-12:45**
Zer dira uraren filtroak? **Matilde Lodner Sack, Uraren tratamendu naturala.**

**13:00-14:15**
Garagardo artisauaren dastaketa. **Boga Garagardoa.**

**17:00-20:00**
**Ludoteka.**

## OTSAILAK 13, igandea

### HITZ BERDEA

**11:00-12:30**
**Geometria sakratua**
· Geometria sakratua eta osasuna. **Montserrat Sorli, Geometria Kuantikoa.**
· Forma eta geometria sakratuko uhinak ura egituratzeko. **Emilio Grau, Nayadel.**

**13:00-14:30**
**Kosmetika ekologiko eta naturalaren onurak**
· Kosmetika organikoa. **Nasei Belleza.**
· Landareak osasunean eta kosmetikan. **Abilia Cosmética.**
· Toxikoak gure azalean, kosmetikoen mehatxua. **Naay Botanicals.**

**17:00-18:30**
**Pertsonentzako material adiskidetsu eta errespetutsuak**
· Ume-eramaile ergonomikoen erabilpenaren onurak. **Muxuz muxu.**
· Plastikorik gabe bizitzeko 5 pauso erraz. **Sinplastico.com**

### ZIRKULU BERDEA

**11:30-12:45**
Uler eta aurreztu ezazu zure argindarraren fakturan. **Goiener**

**13:00-14:15**
Etiketatu ekologikoaren inguruko tailerra. **ENEEK.**

**17:00-20:00**
**Ludoteka.**

### FILM BERDEA

**18:30**
**Gutik Zura (2016)**
Zuzendaria: Mari Jose Barriola Baraibar
Iraupena: 90 min.
Hizkuntza: Euskara. Azpitituluak gaztelaniaz.






Asier Boto arkitektoa eta Endika Berezibar arkitekto teknikoa.

# "Energia berriztagarriak beharrezkoak dira ingurumen iraunkor bat lortzeko"

Arkitektura iraunkorra eta energia berriztagarriak uztartzen dituzte Berezibarrek eta Botok.

> **ARKITEKTURA** M.Zuazubiskar

**Ingurumena zaintzea mundu guztiak egin beharreko kontua dela jakina da, eta, beraien lanaren bitartez, Endika Berezibar arkitekto teknikoak eta Asier Boto arkitektoak eta energia berriztagarrietan espezializatua denak hau hobetzen dihardute azken urteetan.**

**Energia berriztagarriak eta arkitektura uztartzen dituzue. Zertan datza hori?**

**Asier Boto:** 2020rako Europak eskatzen dituen betebeharrak betetzea da gure helburuetako bat, hau da, mundu jasangarriago bat lortzea. Horretarako, hemendik eta 2020ra gas igorpenak %20 murriztea, energiaren kontsumoa %20 jaistea eta energia berriztagarriak %20 sustatzea da gure helburua. Azken batean, gure lana jendeari energia aurrezten laguntzea da.

**Endika Berezibar:** Azken urteetan ikusten gabiltza araudi teknikoak aldatzen dabiltzala Europa jasangarri bat lortzeko asmoz, eta ahalik eta energia gehien aurrezteko esperantzaz ere bai.

**Zein da hori lortzeko Beretek eta Boto arkitektura bulegoek jarraitzen duten bidea?**

**A.B.:** Guk gure lanean lerro nagusi bat jarraitzen dugu, eta hor hiru puntu nagusi ditugu: energia aurreztea, energia gutxiago kontsumitzea eta kontsumitzen den energia berriztagarria izatea .

**E.B.:** Hori lortzeko, beste lan askoren artean, fatxadak eta etxebizitzak eraberritzen ditugu, eta baita barruko instalazioak eraberritu ere.

**A.B.:** Hala ere, aipatu behar da guk jarraitzen dugun bidean, ardatz nagusia bezeroak direla, eta beraiekin izaten dugun harremana, pertsonalizatua. Bezeroen beharrei banan-banan begiratzen diegu, eta, behin hori eginda, beraiei gehien komeni zaiena proposatzen diegu. Azken batean, guk bezeroekin etbezeroentzat egiten dugu lan.

> **"Mundu jasangarria lortzeko energia berriztagarriak beharrezkoak dira "**

> **"Jendeak energia gutxiago kontsumitzea da gure helburua"**

**Beraz, garrantzitsua da gure eraikinetan energia berriztagarriak erabiltzea?**

**A.B.:** Bai, oso garrantzitsua da eraikinetan energia berriztagarriak integratu eta erabiltzea. Jendeek horregaz kontzientziatu beharko luke. Lehen esan bezala, hauek ingurumen iraunkorrago bat lortzeko ezinbestekoak dira. Bestalde, norbanakoei ere energia berriztagarriek onurak ematen dizkiete.

**E.B.:** Onurak handiak dira, eta, batez ere, urte gutxiren buruan ikusten dira benetako emaitzak. Eraikinen isolamendua hobetuz eta instalazioak zaharberrituz energia kontsumoa gutxitzea lortzen da, eta norberaren gastua ere murriztu eta konforta hobetzen da.

**A.B.:** Azken batean, energia mota hauekin berriztea, aurreztea da. Jendea animatu gura genuke energia berriztagarriak eta eraikuntza teknika berriak erabiltzera. Azken batean, beraientzat komenigarriak dira eta.

**E.B.:** Eta ez beraientzat bakarrik, ingurumenerako ere askoz hobeak dira.

**Norberaren erosotasunerako ere aproposak dira energia mota hauek?**

**A.B.:** Bai, dudarik gabe. Eraikuntza teknika eta diseinu egokiekin etxe barruko erosotasuna lortzen dugu, esaterako, tenperatura egokiak lortzen dira, hezetasunei eta haize -lasterrei konponbidea bilatzen zaie...

**E.B.:** Esan daiteke erabiltzen ditugun materialak direla norbanakoen konforterako materialik aproposenetarikoak.

**Bestalde, bariku honetan Berdeago hasiko da, ingurumen iraunkortasunari buruzko azoka. Landako Gunean ikusiko zaituztegu?**

**E.B.:** Bai, ni bertan izango naiz, Beretek enpresa ordezkatzen. Hiru bat urtean standa jarri dugu, eta aurten ere bertan parte hartzea erabaki dugu.

**A.B.:** Nik aurten lagundu egingo diot Endikari, baina, aurrera begira, bertan egotea beharrezkoa dela iruditzen zait.

**Zergatik da garrantzitsua Berdeagon egotea ?**

**E.B.:** Berdeago azoka aproposa da jendeak gure berri eduki eta beraiek informazioa jaso ahal izateko. Beraiek dituzten zalantzak argitzeko toki aproposa da. Bestalde, guretzat ere leku ezin hobea da gure proiektuak ezagutzera emateko.

**A.B.:** Azken batean, azoka hauek erakusten digute zein izan behar den bide egokia Europak 2020rako lortu gura duena lortzeko, eta gure lanak ere zein bide hartu beharko luketen erabakitzeko.

**Bukatzeko, zer esperantza dituzue aurtengo azokako edizioko ?**

**E.B.:** Ahalik eta jenderik gehien bertaratzea espero dugu, eta beraiek dituzten zalantzak argitu ahal izatea. Izan ere, badakigu jakin jendeak etxebizitzen kontuan-eta zalantza ugari izaten dituela. Bestalde, Berdeago azokaren bitartez ingurumen iraunkorrago baten alde egitea beharrezkoa dela eta jendea horretaz kontzientziatzea espero dugu.







3 _otsaila
4
5 _energy
otsaila_ 10
11
nature_ 12
berdeago
Izan.
Sentitu.
100 ERAKUSLE
32 HITZALDI
14 EKINTZA
1 FILM
Euskal Ingurugiro Iraunkortasun Azoka
Landako Gunea
Durango 2017
www.berdeago.com
Antolatzailea
TZBZ
TAZEBAEZ
Babesleak
DURANGO

# Janari lasterraren bertsio osasuntsu eta ekologikoa dastatzeko aukera eskainiko dute

Jaki mexikar, begetariano eta beganoak aukeran



Bartzelonatik dator Cienfuegos furgoneta, produktu ekologikoekin egindako janari mexikarra eskaintzera.

**> ELIKADURA** Itsaso Esteban

Furgoneta batean prestatu eta zerbitzaturiko eskaintza gastronomiko ekologiko eta osasuntsua dastatzeko aukera izango dute Berdeago azokako bisitariek. Janari lasterra eskaintzen dute *food truck* deritzen furgoneta horiek, baina darabiltzaten produktuen kalitateak bereizten ditu. Hanna Caravan eta Cienfuegos janari furgonetak Kataluniatik etorriko dira Berdeago azokan parte hartzera.

Jateko begetariano eta beganoa eskainiko du Hannak: sandwichak, hasierako platerak, postreak eta edariak. Cienfuegos janari furgonetan, aldiz, bertako produktu ekologikoekin egindako janari mexikarra eskainiko dute. "Ahal dugun heinean, goazen lekuetako produktuak erabiltzen saiatzen gara", kontatu du Matias Luna Cienfuegos-eko arduradunak. "Berdeagorako, tokian tokiko produktu freskoak eskuratzeko Durangon ditugun aukerak aztertzen gabiltza, orain, adibidez", esan du.

## Mexikoko gastronomia

Artoagaz egindako eta okelagaz edo barazkiekin barrubeteriko opilak dira Lunak eta lankideek eskaintzen duten jatekoaren oinarria. Argentinarra da Luna, baina Bartzelonan bizi da. "Mexikon bizi izan nintzen denbora batez, eta maite dut hango gastronomia. Gainera, uste dut kalean eta eskuekin jateko janari mota oso egokia dela mexikarra", dio Lunak. Kontsumitzailearen gustuaren arabera, noski, saltsa pikanteak eskaintzen dituzte Cienfuegos furgonetan. "Nahiz eta, orokorrean, ez gauden pikantera oso ohituta, jendea animatzen da probatzera, eta jolas moduko bat ere sortzen da furgonetaren barra inguruan", gaineratu du.

## Garagardo artisaua

Jatekoari laguntzeko, Mungiako Boga garagardo artisaua eskainiko diete Berdeago azokako bisitariei Landako erakustazokan atonduko duten tabernan. Lau gazteren proiektu hori eza-gutu eta garagardo artisaua dastatzeko aukera izango da.



Mungian egindako garagardo artisaua dastatzeko aukera izango da azokan.




URA BIZIA DA

Urik gabe ez dago ez garapenik ez ongizaterik. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan, egunero egiten dugu lan kalitateko hornikuntza eta gure ingurunea zainduko duen eta pertsonen bizitza-kalitatea hobetuko duen saneamendu aurreratua bermatzeko.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.eus

50
1967-2017

# Teslaren auto elektriko bat bertatik bertara ikusteko aukera egongo da azokan

Energia berriztagarriko auto honek 422 zaldi ditu, 4,2 segundotan heltzen da 100 kilometro orduko abiadurara, eta 500 kilometroko autonomia du



Durangon ikusi ahal izango den Tesla Model ST 85 plus modeloa.



Beste auto batzuekin alderatuta, gidatzeko modua kirol arlokoagoa da.

> BERDEAGO J.Derteano

Tesla Motors enpresa erreferentea da auto elektrikoetan. Sillicon Valleyn (Kalifornia) kokatutako konpainia erraldoiak diseinu propioak garatzen eta merkaturatzen ditu. Urte gutxian modelo sorta zabala sortu du, eta horietako auto bat Durangoko Berdeago azokan ikusi ahalko da.

Zoe izeneko enpresa euskalduna aditua da Tesla auto elektrikoetan. Mota horretako auto bat erosi gura dutenei aholkularitza eskaintzen eta bitartekari lana egiten die. Euren bitartez Durangon izango den modeloa honako hau da: Tesla Model ST 85 plus. Lehenengoz, 2013an merkaturatu zuten modelo hau, atzeko trakzioa dutenen artean "prestatuena" da, Zeo enpresako Josu Salazarren esanetan, eta kirol-automobil batek transmititu behar dituen sentsazioetara gehien hurreratzen dena.

Teslaren merkatu zati handi bat kondizio klimatiko hotzak dauden herrialdeetan dagoela azaldu du Salazarrek. Besteak beste, horregatik, gaur egun egiten dituen auto elektrikorik gehienek motor bi —atzealdean eta aurrealdean bana— dituzte, eta trakzioa lau gurpiletan. Euskal Herrian, ordea, hotzak eta izotzak ez dute beste herrialde batzuetan adinako eraginik eta, ikuspuntu horretatik, atzeko trakziodun Tesla Model ST 85 plus autoak ematen dituen sentsazioak motor biko modelo batenak baino "hobeak" direla uste du Salazarrek. "Sentsazioen arlotik gidatzeko modua kirol arlokoagoa da", gaineratu du.

### 4.2 segundotan 100era

Durangon ikusi ahalko den auto elektrikoak 85.000 euro inguru balio du, 422 zaldi ditu eta 4,2 segundotan heltzen da 100 kilometro orduko abiadurara. "Bere sasoian indartsuena zen. Esaterako, 500 zaldiko Porsche 'txiki' batek 4,8ko azelerazioa dauka". Edozelan ere, harrezkero ateratako modeloek marka hori hobetu dute. "Gogoan dut orain hamar bat hilabete 3,2 segundoko azeleraziora heldu zirela eta orain 2,3 segundotan 100 kilometro ordukora heltzen den auto elektrikoa daukate", esan du.

### Autonomia eta bateria

Beraz, abiaduran eta azelerazioan gasolinadun beste edozein auto-marka bezain lehiakorra da Teslaren auto elektrikoa. Baina dena ez da abiadura. Gidariari eskaintzen zaizkion erosotasunari eta erraztasunari ere begiratu behar zaie. Arlo horretako lan eremurik inportanteenetakoak autoaren autonomia, kargatze-denbora eta kargatze guneak dira. Durangora ekarriko duten modeloak 500 kilometroko autonomia du, eta 10 minutu behar ditu 100 kilometroko autonomia kargatzeko. Gaur egun, badaude autonomia gehiago zein kargatze sistema azkarragoa duten autoak.

**Tesla Motors gaur egun erreferente nagusienetakoa da sektorean**

**Atzeko trakzioa dutenen artean auto modelorik "prestatuena" da**

**Estetikoki ez ezik ekipamenduen arlotik modelo berriekin nahiko parean dago**

### Estetika

Ordenagailuekin gertatzen den moduan, Teslak hobekuntzak gehitzen dizkie beren modeloei aldiro-aldiro. Kanpotik berdinak dirudite, baina barrutik alde dezente egon daiteke sei hileren arteko aldea duten aut oen artean. Ez da Durangon erakutsiko duten modeloaren kasua. Estetikoki ez ezik, ekipamenduaren aldetik berriekin nahiko parean dago.

D3 arquitectos



Elkartegia. Landako 4. Durango
T. 94 681 23 11
info@d3arquitectos.com
www.d3arquitectos.com

Durangon kokatutako arkitektura bulegoa, irisgarritasun eta energia-eraginkortasun irizpideak erabiliz eraikinen erosotasuna hobetzeko berriztatze eta birgaikuntzan adituak.

Emaitza hoberena lortzeko helburuarekin obra garapen osoan aholkatuz auzo komunitate eta partikularrekin lan zuzena.

Esperientzia zabala:
- Eraikin osoen birgaitzea.
- Fatxada zein teilatu energia birgaitzeak.
- Igogailu instalakuntzak zein irisgarritasun hobekuntzak.
- Txosten teknikoak (ITEak, EZEak, peritazioak...).
- Diru-laguntzak zein lizentzia tramitazioak.

Konpromisorik gabe kontsultatu.






# “Hidrogenoak ez du ezer kutsatzen, ura botatzen du bakarrik”

Hidrogenoa etorkizuneko lehengaietako bat izango dela azalduko dute biharko berbaldi praktikoan



Ezkerretik hasita, Abaitua, Sutil, Solozabal eta De Carlos.

**> ELKARRIZKETA** M. Onaindia

**Berdeago azoka oraina da, baina etorkizuna ere bai. Norabide horretan, garrantzia hartzen du gazteekin egiten den lanak. Esaterako, asteburu honetan hiru berbaldi praktiko eskainiko dituzte Maristak ikastetxeko ikasle eta irakasleek, hidrogenoa, zelula termoelektrikoak eta lebitazio magnetiko-kuantikoa ardatz hartuta. Jon Andoni Abaitua eta Josean Solozabal irakasleak, Luis Sutil irakasle ohia eta Gontzal De Carlos ikaslea dira egitasmoaren partaideetako batzuk. Azken hirurek erantzun dizkiete ANBOTOren galderei. Ikastetxean landutako praktikak erakutsiko dituzte bihar eta etzi.**

**Zelako esperientzia da Berdeago egitasmo honetan parte hartzea?**

**Gontzal De Carlos:** Ona. Gauza berriak ikasi ditugu. Gogoagaz gaude guk ikasi duguna besteei erakusteko. Adibidez, hidrogenoa modu kimiko batean zelan egin ikasi dugu, elektrolisiaren bitartez. Iparrorratz bategaz zelan erabili ahal den iman bat, eta zer egin lebitatu dezan.

**Josean Solozabal:** Ekintza hauetan parte hartuta, ikasleak inplikatzea da gure asmoa. Ingurumena zaintzeko ziurtagiria daukagu ikastetxean, eta testuinguru horretan kokatzen da. Gainera, eskola proiektuaren barruan lerro berezi bat daukagu arlorako.

**Zer egin daiteke, zehazki, hidrogenoagaz?**

**J.S.:** Hidrogenoagaz auto batzuk kargatu eta zelan funtzionatzen duten ikusi dugu. Badaude autobusak herrialde batzuetan hidrogenoagaz funtzionatzen. Hidrogenoagaz, pila nahiko azkar kargatu daiteke, eta autonomia handia ematen du. Herrialde batzuetan, AEBetan esaterako, hidrogendegiak instalatzen dabiltza, gasolindegiak lez.

**Luis Sutil:** Kartutxo batzuetan pilatzen da hidrogenoa, eta horregaz elektrizitatea sortzen da. Bilbon ere oraintxe erosi dute autobus bat hidrogenoduna. Ez du ezer kutsatzen, ura botatzen du bakarrik. Hidrogenoaren abantaila da pilatu egin daitekeela. Elektrizitate ekoizpen gehiegizkoa dagoenean, zer egiten da Oizeko eolikoekin? Gelditu egiten dituzte, ezin delako biltegiratu. Hidrogenoa bai, ostera.

**Berba egiten da berriztagarrien inguruan, baina pausorik ematen al da?**

**J.S.:** Estatuan apustu bat egin zen garai batean, baina gaur egun atzean geratzen ari gara. Horregatik dira garrantzitsuak Berdeago, eskolak, gazteen parte-hartzea, sentsibilizazioa...

> **“Hidrogenoagaz pila nahiko azkar kargatu daiteke, eta autonomia handia ematen du”**

**L.S.:** Herbehereetan, Norvegian, Finlandian... Zenbait herrialdetan ezarri dute 2020rako ezin dutela erabili gasolinarik, eta apurka-apurka badoaz auto elektrikoak sartzen. Bestalde, Toyotak hidrogenodun autoa atera du, Mirai [*etorkizuna, japonieraz*] izenekoa. Txinak ere hidrogenodun hegazkin bat sortu du. Nire ustez, gasolinaren azken egunak izango dira hemendik denbora batera. Baina industriaren interesa dago, petrolio errefindegiena, petrolio ekoizpenarena...

**Baina oraindik garestiak dira energia berriztagarria duten autoak, ezta?**

**J.S.:** Bai. Oraindik ekologikoa dena garestia da.

**L.S.:** Nik auto elektrikoa daukat, eta 40.000 euro kostatu zitzaidan. Energiaren Euskal Erakundeak 5.000 euroko laguntza eman zidan, eta markak ere beste hainbeste. Baina, hala ere, 30.000 euro kostatu zitzaidan; badaude auto merkeagoak!

**Zelan kargatzen duzu autoa, Luis?**

**L.S.:** Garajean kargagailu bat daukat, eta ordu erdi batean kargatzen da. Autonomia gutxi dauka oraindik; 25 bat kilometro egiten ditu elektriko soilagaz. Bestalde, modu hibridoa ere badauka, autonomia handiagoa ematen diona.

> **“Estatuan apustu bat egin zen garai batean, baina gaur egun atzean geratzen ari gara”**

**Energia berriztagarriak ezagutzeko aukera zabala egongo da asteburu honetan Berdeago Energyn.**

**L.S.:** Bai. Eguzki energia, eolikoa, geotermia... Honetan gabiltzanok ezagutzen ditugu horiek dagoeneko. Baina, zer etorriko da? Grafenoa da hori. Grafenodun bateriekin 400 kilometro iraungo lukete autoek. Baina hemen ez da behar beste ikertzen. Oraingoari baino, datorrenari eman beharko genioke garrantzia, eta ikasleak horretarako prestatu behar ditugu.

BERRIZ ARKITEKTOAK
Josu Oarbeaskoa
Patxi Ecenarro
www.berrizarkitektoak.com

skua
Alberto Gallego
Aitziber Iraeta
www.skua.eus

Learreta Markina, 24 behea. Berriz
T: 946 82 77 49 F: 946 55 07 60

Aldatu zure leihoak egun bakar batean!
eco-thermik
Fabrikazioa eta konponketak
Arotzeria
Aluminioa - PVC - Mistoak
94 622 56 13
www.ecothermik.com
ecothermik@ecothermik.com
Eitua Industrialdea, 5. Pabilioia - 48240 BERRIZ

# EDERTASUN GIDA



Amaia Salazar (Nukleo)

## 2017rako moda

**Zelako moda etorriko da 2017an ile-apaindegietara?**
Kolore aldetik, gris koloreko ileak bereziki, eta fantasia lez ezagutzen diren kolore argiak ere bai. Mozketari dagokionez, nesken garondoetan txima gehiago ikusi ditugu ikastaroetan, eta baita geruza laburragoekin ere.

**Norbaitek estiloa aldatu gura badu, Nukleon lagunduko diozue?**
Noski. Nukleon beti gaude hori egiteko prest. Gainera, normalean ile-apantzaile guztioi gustatzen zaizkigu lan horiek.

**Orain, neguko hotzak eragiten al du ilean? Zer egin dezakegu zaintzeko?**
Bai, noski. Batez ere kiribiltzen diren ileek oso gaizki jasaten dute negua, umeltasunaren ondorioz. Guk keratina tratamendua egitea gomendatzen dugu. Oso emaitza onak ematen ditu, oso egokia da arazo honetarako. Baina, horrez aparte, baditugu arazo gehiagorako irtenbideak ere tratamenduen bidez.

## ILE-APAINDEGIAK









## ESTETIKA ZENTROAK









**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**

# San Agustinen itsasoratuta, bidaia musikal eta dantzatua, Karibetik Argentinaraino

Otsailaren 11n, 20:00etan, Hegoamerikako doinuek beteko dute Durangoko San Agustin kulturgunea



Artista euskaldunak, kubatarrak eta venezuelarrak elkartu dira proiektu honetan.

**> MUSIKA** Itsaso Esteban

Durangoko kontserbatorioan irakaslea den Lerman Nieves musikariak bultzaturiko proiektua da *Yakambú* hari boskotea, Lázaro Castro pianista, Denis Barzaga perkusionista eta Dairi Brown dantzaria elkartu dituen *Atlantikoz bestaldean* ikuskizuna. Artista euskaldunak, kubatarrak eta venezuelarrak bildu dira proiektuan, eta otsailaren 11n, 20:00etan, Durangoko San Agustin kulturgunean ariko dira. Iazko udaberrian kontzertu bana eskaini zuten Sopelan eta Bilbon, baina otsailaren 11n Durangon abiatuko duten ibilbide berri honetan, Euskal Herriko zein atzerriko ahalik eta txokorik gehienetara iritsi gura dute.

"Musika koloretsu eta beroaren bitartez" adin guztietako entzuleak Atlantikoz bestaldera bidaiatzera gonbidatuko dituzte Nievesek eta taldekideek. Karibetik eta Argentinarainoko bidaia musikalean parte hartuko dute otsailaren 11n San Agustin kulturgunera doazenek. "Oso errepertorio anitza osatu dugu", azaldu zuen Nievesek, astelehenean, San Agustin kulturgunean eskaini zuten prentsaurrekoan. Bere herritik joatean aitak esan ziona gogoratu zuen Nievesek aurkezpen horretan, eta badirudi gogoan izan duela *Atlantikoz bestaldean* ikuskizunaren errepertorioa osatzean: etxetik urrun egon arren, sorterriko musika ez zezala sekula alboratu eskatu ei zion aitak.

Ernesto Lecuona, Carlos Gardel eta Ernesto Grenet musikarien sorkuntzen gainean Nievesek egindako moldaketek osatzen dute, besteak beste, *Atlantikoz bestaldean* ikuskizuna. "Son kubatarra, doinu brasildarrak, Venezuelako joropoa eta tangoa" izango dira, besteak beste, entzungai. "Musika beroa eta alaia, baina aldi berean oso fina" eskainiko dute Lerman Nievesen berbetan.

Duela 20 urte etorri zen Lerman Nieves Venezuelatik Euskal Herrira, eta 12 urte daramatza kontrabaxu eta baxu elektriko klaseak ematen Durangoko kontserbatorioan. Kontatu duenez, "lankide eta lagunekin musika jotzeko gogotik" sortu zen egitasmo hau, eta Irati Ortubia Bartolome Ertzilla musika eskolako lankidea izan zuen lehenengo bidelaguna. Gutxinaka, hango eta hemengo zazpi musikari batu dira proiektura, eta baita Dairi Brown jatorri kubatarreko dantzaria ere.



***"Lankide eta lagunekin jotzeko gogotik sortu zen egitasmo hau"***

LERMAN NIEVES

Kmon Produkzioak Durangoko enpresak ere parte hartu du ikuskizun honen ekoizpenean. Lehenengo aldia dute langintza horretan. Josean Hernandezek azaldu zuenez, "gure lanari lotuta, altxor asko eduki izan ditugu eskuartean, baina gertuko jendearen ikuskizun orijinal, bero eta kolore handiko hau aukeratu dugu gure lehenengo ekoizpena izateko".

# Plateruenean arituko da 'Inun', domeka eguerdiko saioan

'Inun' zornotzarrak kontzertua eskainiko du, 13:00etan, 'Aperitifa Sessions'-en barruan



Plateruenak kontzertu lasaiak eskaintzen ditu 'Aperitifa Sessions' saioetan. Argazkia: Iñaki Mendizabal.

**> MUSIKA** Aimar Esteban

Musikaz beteriko asteburua dator Plateruenera. Hiru egun jarraian hainbat kontzertuz gozatzeko aukera eskainiko dute. Iseo, Keu Agirretxea & Fignugh Experience, Petti eta Etxeko Uzta, Joseba B. Lenoir Gang eta *Inun* arituko dira antzokian asteburuan zehar.

Barikuan, Iseo abeslariak *Last Night* deituriko bere azken lana aurkeztuko du. Egun berean, Keu Agirretxea Ondarroako abeslaria Fignugh Experience deituriko bere bandagaz batera igoko da oholtza gainera. *Nomadak eta kofrea* diskoa aurkezten ari da hainbat artistagaz lan egin duen musikari bizkaitarra. 22:00etan hasiko dira kontzertuak.

Ordu berean, zapatuan, Petti eta Etxeko Uzta arituko dira *Hotzikarak* diskoa aurkezten. Berako artistak Anari, Rafa Rueda eta Txuma Murugarrenegaz sinatutako diskoak ditu. Oraingoan, bere lana Etxeko Uztagaz batera aurkeztuko du, zuzenean. "Durangora etortzea beti izaten da plazer bat, urtero etortzen gara", aitortu du Pettik. Zapatuko kontzertua, "elektrikoa izango da, rock-eroa, diskoko kantak joko ditugu eta kolaborazioak ere izango ditugu. Adibidez, Joseba Lenoir gugaz ere igoko da, diskoan grabatu zuen kanta jotzera", azaldu du. Joseba Lenoir ibilbide oparoa duen artista da, eta Joseba B. Lenoir Gang nafarrak azken kontzertuetan murgilduta daude talde gisa. Beraz, Joseba B. Lenoir Gang proiektuari agur esan aurretik, Plateruenean ikusteko aukera egongo da zapatuan. Kontzertuak amaitzerakoan Dj Fortunek alaituko du jai-giroa.

### Aperitifa Sessions

Lasaitasuna izango da nagusi domeka eguerdian Durangoko Plateruena kafe antzokian. 13:00etan hasita, Mikel Inunziaga *Inun* zornotzarrak *Aperitifa Sessions*-en barruan kontzertua eskainiko du. "Horrelako orduetan aurretik jo izan dut, giro desberdina sortzen da, intimoagoa", aitortu du *Inun*ek. Euskaldeko musikariak idazle euskaldunen hainbat poema musikatu ditu bere azken lanean. *Da nola* da azken disko honen izena. Disko hau "irla baten gisa" definitzen du kantautoreak, eta etorkizunean berriz ere berak idatziko ditu bere kantak. "Oso gustura gaude diskoaren emaitzagaz. Bilboko kafe antzokian egin genuen aurkezpena, eta geroztik biran gabiltza. Harrera oso ona izan dugu", dio. Plateruenek kontzertua Bihotz Gorospegaz aurkeztuko du, biko formatuan. "Kuriosoak izaten dira horrelako kontzertuak, ikusleak kanta intimoak eta basatiak aurkitu ditzake bertan. Ilusioz beterik goaz Durangora", adierazi du. Kantautorearen birak jarraitu egingo du, eta martxoaren 10ean Zornotzan egongo da taldeagaz batera, "beste formatu indartsuago bategaz".

Kirola

Asier Aspuru Agorria | Pilotaria | Abadiño,1991



Asier Aspuru Abadiñoko Tornosolo trinketean asteleheneko entrenamendu saioaren ostean.

# "Trinketean aurrera egiteko aukera gehiago ditudala ikusten dut"

## Gaur arratsaldean San Blas Txapelketako finalerdia jokatuko du 25 urteko abadiñarrak

> PILOTA Joseba Derteano

**Gaur, 19:00etan, San Blas pilota txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte Tornosolon. Asier Aspuru abadiñarra izango da protagonistetako bat. Iaz bere ibilbideko urterik emankorrena izan zuen. Frontoian zein trinketean, bietan irabazi zituen txapelak. Fullaondo bikotekide duela gaur irabazten badu, domekan beste txapel bat janzteko aukera izango du.**

**Zelan ikusten duzu gaurko finalerdia?**

Arabio eta Etxebarria txapelketako bikoterik konpletoena dela uste dut. Txapelketa irabazteko faboritoetakoak dira. Ahal dugun neurrian Arabio saihesten eta atzean agintzen saiatu beharko dugu.

**Eskumuturreko lesio bat izan duzu. Errekuperatu zara lesiotik?**

Ehuneko ehunean beharbada ez, baina nahiko errekuperaturik nago. Bizkaiko txapelketako finalean zaintiratua izan nuen, aurreko hormaren kontra kolpea hartuta. Min apur bat sentitu arren jarraitu egin nuen, finala zelako. Irabaztea nuen buruan, eta gero gerokoak. Ondoren, eskua hoztean etorri zen benetako mina.

**Arabio herrikidearen kontra jokatzea berezia izango da zuretzat?**

Bai. Makina bat partidu jokatu eta hamaika abentura bizi izan ditugu elkarregaz. Dozena bat urte daramatzagu jokatzen, eta denbora horretan elkarren kontra aritzea ere egokitu zaigu. Kantxa barruan, entrenatzen zein frontoitik kanpora denbora dezente eman dugu elkarregaz. Lagun oso onak gara. Hori igarri egiten da elkarregaz jokatzen dugunean. Ondo hartzen dugu elkar eta komunikazio ona dago kantxan.

**Domeka goizeko jaialdian, finalaz gainera, beste partidu berezi bat ere egongo da. Mikel Gonzalez eta Ander Antxia Waltary eta Guichanduten kontra.**

Ikustekoa izango da hori ere. Ipar Euskal Herritik hona etorri izan dira jokatzera, eta hainbatetan partidua galduta bueltatu dira. Xarma edo ikusmin bereziko partiduak izaten dira, Iparralde-Hegoalde pike horregatik.

> *"Ahal dugula Arabio saihesten eta atzean agintzen saiatu behar dugu"*

**Hego Euskal Herriko pilotariek Ipar Euskal Herrikoen adinako maila badutela ematen du. Zer uste duzu zuk?**

Batez ere, Bizkaian maila handiko trinketlariak daude, Mikel Gonzalez eta Ander Antxia, esaterako. Nire ustez, hasiera batean ematen duena baino alde txikiagoa dago Ipar Euskal Herrikoen eta Hego Euskal Herrikoen artean. Alde hori benetan zelakoa den ikusteko, elkarren arteko partidu gehiago jokatu beharko lirateke. Hemengoek aukera gehiago izan beharko lukete Ipar Euskal Herrian partiduak jokatzeko.

**Iaz hainbat txapel lortu zenituen frontoi luzean zein trinketean. Trinketean Bizkaiko txapelduna zara, eta GRAVN zein Euskal Herriko txapelketak irabazi dituzu. 2016a zure urterik onena izan zen?**

Irabazitako txapelak kontuan hartuta, nire ibilbideko urterik onena izan zen, bai. Zazpi irabazi nituen guztira.

**Zer helburu jarri dituzu aurtengo urterako?**

Helburua beti da, gutxienez, aurreko urteko txapelak berdintzea edo maila horretara ahalik eta gehien hurreratzea. Txapel desberdinak lortu izan ditut, eta ea aurten berri batzuk irabazteko modurik badaukadan.

**Frontoi luzean zein trinketean, bietan jarraitzeko asmoa duzu?**

Printzipioz bai. Batek baino gehiagok esan dit trinketean etorkizun hobea ikusten didatela. Nik neuk ere gusturago ikusten dut neure burua, konfiantza gehiagogaz. Trinketean aurrera egiteko aukera gehiago ditudala ikusten dut, baina kosta egiten zait frontoia uztea. Egia esanda, aspaldian buruari gero eta buelta gehiago ematen nabil, esanez, beharbada badela ordua trinketean zentratzeko eta ea noraino heldu naitekeen ikusteko. Ez ditut 20 urte ere, eta beharbada trinketerako apustua egin behar nuke. Aukera hori darabilt buruan. Baina, tira, aurten oraindik bietan jarraitzeko asmoa dut.

**Frontoia uzteko duda horrek badu sentimentaltasunetik apurren bat?**

Frontoian jarraitze hori sentimentaltasun puntu handi baten ondorioa da, bai. Bizitza osoa daramat frontoian, nire bizitzako parte handia izan da eta, ez dakit, ematen du frontoia utzita pilota uzten duzula. Ez da horrela, baina sentsazio hori ematen dit.

**Trinketean egiten ari den bideagatik, Mikel Gonzalez erreferente bat izan daiteke?**

Bai, Ipar Euskal Herrian gorengo mailan jokatzeko maila badaukala erakutsi du. Apustu bat egin eta ondo irten zitzaion. Jarraibide bat da besteontzat. Gainera, Hego Euskal Herriko beste trinketlari batzuei han jokatzeko atea ireki ahal dien pilotaria izan daitekeela uste dut. Horretarako, atzetik gatozenok ere bultza egin beharko dugu aukerak izan gura baditugu.

**Ipar Euskal Herrian jokatu izan duzu. Zelan joan ziren esperientzia horiek?**

Hiru-lau partidu jokatu ditut. Esperientzia politak izan ziren. Beharbada ezin izan dut neure onena eman, hango trinketeak desberdinak direlako. Hemen azkarrago ibiltzen da pilota.

**Abadiñarra izanda, zelan biziko dituzu sanblasak?**

Aurtengoa desberdina izango da, gaur, San Blas egunean bertan, partidua daukadalako. Baina hori gauza positibo moduan ikusten dut. Sanblasak beste modu batera bizitzeko aukera emango dit. Jende ezagun asko etorriko da trinketera, giro polita egongo da, eta horrek motibatu egiten nau.

**Frontoian ikusi zaitudan bakoitzean, zure aita ere hantxe egon da beti. Berarengandik datorkizu afizioa?**

Jokatzen dudan lekuan jokatzen dudala, aita, ama, izeko, osaba eta Leire lehengusina hortxe daude beti ni animatzen. Eskerrak ematen dizkiet. Baina, bai, afizioa aitarengandik datorkit. Umetan urtebetez aritu ostean, utzi egin nuen, eta aita pilotalekuan lanean hasi zenean, horrek itzultzera bultzatu ninduen. Aita pilotalekuan eta ni ere ondoan, pilotan.

# Tabirako Baqueko talde igoberria bikain dabil Euskadiko bigarren mailan

Erregional mailan ezinean egotetik Euskadiko bigarren mailan lider egotera igaro dira urtebetean



Tabirako Baqué Euskadiko bigarren mailako taldearen aurtengo familia argazkia.

**> TXIRRINDULARITZA** J.D.

Tabirako Baqueren bigarren taldea eraldatu egin da azken urte bietan. David Quero entrenatzailearen eskutik etorri den aupada berriagaz, Bizkaiko mailatik Euskadikora igotzea lortu zuten iaz. Aurten sufritzea egokituko zitzaiela uste zuten, baina, ustekabean, Euskadiko bigarren mailako gorenean daude.

Ina Mendibe klubeko presidenteak "lan bikaina" egiten dabiltzala uste du. "Mailari eustea bera erronka handia zela uste genuen hasieran", dio. Iaz arte erregional mailan trabatuta zegoen, eta taldearen gorakadaren oinarria "konpromisoan" eta elkarren artean sortu duten "giroan" dagoela azaldu du. "Iaz arte ez zegoen hain konpromiso irmorik taldean. David Querok gidaritza hartu zuenean dinamika horri buelta ematea lortu genuen", gaineratu du. Erregional maila atzean uztea pauso garrantzitsua izan zela uste du, orain talde lehiakor eta indartsuagoen kontra jokatzeko aukera dutelako. Horrek beste exijentzia maila bat eskatzen die jokalariei ere.

Bigarren taldearen berpizkundeak zuzenean eragingo dio lehenengo taldearen martxari ere. Iaz arte, bigarren mailako taldearen errendimendua ikusita, junior mailakora jotzen zuten sarritan errefortzu bila. "Batzuetan salto handiegia zen oraindik egin barik zeuden jokalarientzat", azaldu du Tabirako presidenteak. Orain, salbuespenak salbuespen, junior mailakoen hurrengo koska naturala bigarren taldea da inoiz baino gehiago, eta han hartu dezakete behar duten esperientzia ondoren azken saltoa emateko.

Zapatuan, 16:00etan, Gasteizko Arizti taldearen kontra jokatuko dute Durangon. Irabazteko partidua dute sailkapeneko erdialdeko taldearen kontra.

# Euskadiko judo txapelketa jokatuko dute Perezek, Diezek eta Beltranek



Iker Perez, Eneko Diez eta Jon Mikel Beltran.

**> JUDOA** J. Derteano

Bihar gazte mailako Euskadiko txapelketa jokatuko dute Gasteizen, eta Durango Judo Taldeak hiru ordezkari izango ditu: Iker Perez, Eneko Diez eta Jon Mikel Beltrán. Joan zen asteburuan Getxon jokatutako Bizkaiko txapelketan egindako lan bikainak eman die Euskadikoan aritzeko aukera. Perezek urrezko domina irabazi zuen, eta Diezek eta Beltranek, zilarrezkoa. Lortutako emaitzak urte osoan mantendutako "maila erregularraren emaitza" direla adierazi dute klubeko arduradunek.

## Durangoko herri kroserako izen-ematea hasi dute

**> HERRI KROSA** J.D.

Kirolerrota atletismo klubak Durangoko V. Herri Krosa antolatuko du otsailaren 19ko domekan. Ezkurdiko plazatik hasiko da, 11:00etan, eta hamar eta bost kilometroko lasterketa bana egongo da aukeran. Kros horretan parte hartu ahal izateko izen-ematea hasita dago *www.sekulebedarra.com* webgunean. Proba egunean bertan ere eman daitekeela izena jakinarazi dute antolatzaileek. Izen-ematea hamar euro izango da.

## ADITUAREN TXOKOA

**UNAI ZAMALLOA**

Saskibaloia



### Otsailean hitz barik, bero bero!

Denboraldi erdian gaude eta, egia esan, gure taldeak momentu garrantzitsuak ari dira bizitzen.

Zilarrezko LEB mailan Zornotzako taldea urte latza dabil bizitzen. Latza aurreko denboraldiekin konparatuz, orduan garaipenak zirelako nagusi. Baina, aurten, garaipenak lortzea zaila bihurtu da, eta, batez ere, Navarraren kontrako partidu eskasaren ondoren. Horregatik, Arcos Albaceteren aurka irabaztea ezinbesteko bihurtu zen.

Horrez gain, Vasilije Vucetic jokalariak ezin izan zuen jokatu, bere familia Belgradorako sarrera bidean izandako istripu batean galdu ondoren. Benetan gogorra! Hemendik ere gure doluminak Vasilije Vucetic-i. Hau guztia kontran izan arren, garaipen garrantzitsua heldu zen. Ia, aurrerantzean, sailkapenaren egoera honek jokoan lasaitasuna eta hobekuntza dakartzan!

Bestalde, Tabirakoko bi talde nagusiak ere buru-belarri ari dira. Neskak 2. postuan daude sailkatuta. Hala eta guztiz ere, Ausarta Barakaldo garaipen batera jarri da, aurreko astean partiduko bigarren luzapenean garaipena lortuta Jesus de Vicenteren taldearen kontra.

Mutilen taldea, ostera, talde eraberrituaren lehen denboraldian, lana txukun ari da egiten, eta goiko lau postuetako borrokan dabil, hemendik eta denboraldi bukaerara sorpresak eman ahal dituelarik.

Horrela ba, ekin lanari eta… aurrera!







## Durangaldeko berbalagunen

# VIII. Kultur Lehiaketa

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1. 1148an Gasteizko hiriak pairatu zuen izurriteak biztanleriaren laurden bat hil zuen. Nori egotzi zioten errua Gasteiztarrek?** | **2. Santa Anako arkua jatorriz zein estilotakoa zen?** | **3. XIV eta XV. mendeetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan , zein zen testigantza faltsua ematearren ezartzen zen zigorra?** | **4. Zenbat animalia sartu zituen Moisesek arkan?** |
| a) Juduei<br>b) Ijitoei<br>c) Agoteei | a) Erromanikoa<br>b) Barrokoa<br>c) Errenazentista | a) Gartzela zigorra<br>b) Hagin bat kentzea<br>c) Burua moztea | a) Bakarra<br>b) Bat ere ez<br>c) Espezie bakoitzetik bi |
| **5. Nork irabazi zuen 2016ko literatura nobel saria?** | **6.Nola hil zen Mahatma Gandhi?** | **7. Zein da Afrikako estaturik txikiena?** | **8. Italiako zein lekutan sortu zen Ferrari lantegia?** |
| a) Bob Dylan<br>b) Patrick Modiano<br>c) Mario Vargas Llosa | a) Tiroz hil zuten<br>b) Itota hil zen<br>c) Minbiziak jota | a) Tunisia<br>b) Gambia<br>c) Zanzibar | a) Montekarlon<br>b) Modenan<br>c) Milanen |
| **9. Non jaio eta hil zen Telesforo Aranzadi?** | **10. Non dago UNESCO erakundearen egoitza nagusia?** | **11. Noiz sortu zen ETB?** | **12. Nork irabazi zuen 2016ko Bizkaiko Bertsolari txapelketa?** |
| a) Antzuolan jaio eta Bartzelonan hil<br>b) Bergaran jaio eta Bartzelonan hil.<br>c) Osintxun jaio eta Bergaran hil | a) Pragan<br>b) Bruselan<br>c) Parisen | a) 1980<br>b) 1982<br>c) 1985 | a) Etxahun Lekuek<br>b) Maialen Lujanbiok<br>c) Amets Arzalluzek |
| **13. Nork idatzi zuen euskaraz argitaratu zen lehenengo liburua?** | **14. Zein arbola mota da Gernikako arbola?** | **15. Noiz burutu zen Berbalagunek iaz antolatutako IV.mintzodromoa?** | **16.Zein da aurtengo korrikaren omendua?** |
| a) Axularrek<br>b) Lekuonak<br>c) Etxeparek | a) Haritza<br>b) Pagoa<br>c) Lizarra | a) 2016ko azaroaren 17an<br>b) 2016ko abenduaren 7an<br>c) 2016ko urriaren 24an | a) Durangoko azoka<br>b) Euskaltzaindia<br>c) Korrikaren sortzaileak |

**Izen-abizenak eta telefonoa:**

**Erantzun zuzena markatu, eta entregatu herriko edozein euskaltegitan edo euskara-zerbitzuan, otsailaren 10a baino lehen.**
**Saria, e-book bat.**




639 400 786
www.durangaldea.blogspot.com
durangaldea@aek.eus
Durangaldeko berbalagunak

Antolatzaileak eta Udalak

Babesleak

Bizkaia

praktikatu

# Munduko kopan lehenengoz parte hartuko du Ziortza Isasik

## Iaz Espainiako txapelketan irabazitako domina sortak ireki dio atea




Ziortza Isasi pistako proba baten amaieran. Maialen Zuazubizkar

**> TXIRRINDULARITZA** J.D.
Ziortza Isasi (1995, Elorrio) bere ibilbideko denboraldirik ilusionanteenaren atarian dago. Errepidean zein pistan erronka berri eta inportanteak ditu aurretik. Pistari dagokionez, munduko kopako proba batean estreinatuko da otsailean. Errepidean, aldiz, estatuko talderik indartsuenetakoa den Lointek taldeagaz ibilbide berri bati ekingo dio.

Durangaldeak ordezkari bi izango ditu otsailaren 17tik 19ra Kolonbiako Cali herrian jokatuko den munduko kopako proban: Ziortza Isasi eta Illart Zuazubiskar abadiñarra. Zuazubiskarrentzat ez da nobedadea izango, baina Isasirentzat, bai. Nobedadea izanagatik, ez da sorpresa elorriarra taldeko jazarpeneko laukoteko partaide izatea. Iaz Espainiako txapelketan urrezko hiru domina eta zilarrezko bat —horietako bi 23 urtez azpiko mailan— irabazi zituen, eta Espainiako selekzioko hautatzaile Salvador Meliak orduan ere berarengana jo zuen. “Prest egoteko esan zidan. Normalean errepideko denboraldia martxo inguruan hasten da, eta abisatu ezik gaitza da sasoian egotea. Beraz, prestaketa aurreratu egin dut aurten”, azaldu du Isasik.

Gloria Rodriguezek, Ane Iriartek, Marga Lopezek eta laurek zer eman dezaketen aurreikustea gaitza da. Lesioen eta azken orduko aldaketen ondorioz, oraindik ez dira elkarregaz behin ere aritu. Beraz, helburu zehatzik barik doaz . “Ahalik eta ondoen lehiatzea da helburua”.

### Lointek-egaz salto bat

Lointek taldeak gaur du denboraldiko aurkezpena, eta hantxe izango da Isasi. “Salto berri bat” emateko aukera “gogotsu” hartu duela dio. “Estatuko talderik garrantzitsuenetakoa da. Oraindik ez dakit zehazki zein izango den nire lana. Datozen egunetan argituko didate”, gaineratu du.

Pista eta errepidea. Modalitate bietan pauso sendoak ematen ari da, eta oraingoz ez du bat bestearen gainetik jartzeko asmorik. “Orain arte pistan heldu dira nire lorpenik onenak, baina biak gustatzen zaizkit, eta biak ahalik eta ondoen uztartzen saiatuko naiz”, segurtatu du txirrindulari elorriarrak.

# Errubiaren elitean tokia egiten dabil Barrutieta

## Taldeka zein selekzioagaz gorenera heldu da



Uribarri Barrutieta Getxogaz entsegu bat egiteko puntuan. Aitor Uriarte

**> ERRUGBIA** J. Derteano
Uribarri Barrutieta durangarrak errugbiaren elitean kokatu duten hiru jauzi handi eman ditu 2017an. Alde batetik, Getxo Rugby Taldeak fitxatu du aurten; hau da, Ohorezko Mailan dabil, Espainiar Estatuko mailarik gorenean. Urtarrilaren 21ean egin zuen debuta, eta Getxok lortutako hiru entseguetatik bi bereak izan ziren.

Espainiako selekzio absolutuan ere tokia egiten ari da. Urtarril hasieran 15eko errugbi selekzio absolutuagaz lehenengoz jokatu zuen Galesen kontrako lagunartekoan. Egunotan, berriz, Sidneyn (Australia) dago World Rugby Series txapelketa jokatzeko. Zazpiko selekzio absolutuko partaide den estreinako aldia da.

### Murray, Euskadikoagaz

Bestalde, Euskadiko emakumezkoen errugbi selekzioa txapelketa autonomikoaren lehenengo mailara igo zen joan zen asteburuan, eta Joana Murray (DRT) durangarra talde horretako partaidea izan zen.

# Kulturalak aurkari zuzena den Bermeo hartuko du etxean

**> FUTBOLA** J. D.
Hirugarren Mailako *play off* postuetarako borrokan, Durangoko Kulturalak Bermeo aurkari zuzena hartuko du zapatu honetan, 16:45ean, Tabiran. Talde biak igoera fasea jokatzeko aukera ematen duten postuetan daude gaur egun. Alaves B eta Vitoria Hirugarren Mailako aurreneko bi postuetan daude 49na puntugaz. *Play off*a jokatzeko aukera ematen duten beste postu biak eskuratzeko lehia estua dago hainbat talderen artean. Une honetan, Kulturalak 43 puntu ditu, Bermeok 40, Beasainek 39 eta Portugaletek 37. Liga amaitu bitartean, talde horiek elkarren kontra jokatzen dituzten partiduek balio berezia izango dute, aurkari zuzenak direlako.

Talde horietatik denetatik Durangoko Kulturala da etxean indartsuen dabilena. Bermeo pattal dabil kanpoan.

# Mikel Bizkarrak podiumean hasi du denboraldia

**> TXIRRINDULARITZA** J. D.
Mikel Bizkarra mañariarrak denboraldiko lehenengo podiuma eman dio Euskadi Basque Country Murias Taldeari. Mendiko saria irabazi du Mallorcako Itzulian.

Bazekien bigarren etapa gakoa izango zena sari hori lortzeko borrokan. “Andratxeko etapan, banekien Puig Majorreko mendatea lehenengo igarotzen zuenak mendiko saria lortuko zuela. Beraz, 300 metro falta zirenean erasoa jotzea erabaki nuen”, aitortu zuen Bizkarrak lasterketa amaitu bezain pronto. Behin mendiko sailkapena irabazita, Garikoitz Bravo taldekideari laguntzen aritu zen.

Atsedenik hartzeko ia astirik barik, aste honetan Valentziako Itzulia lehiatzen dabil mañariarra.

## AGENDA

**> ERRUGBIA**

OHOREZKO B MAILA (gizonak)
**Durango Nissan Gaursa - Zarautz**
· Domekan, 12:00etan, Arripausuetan.

**> FUTBOLA**

BIGARREN B MAILA (gizonak)
**Amorebieta - Real Union**
· Zapatuan, 16:00etan, Urritxen.

HIRUGARREN MAILA (gizonak)
**Durangoko Kulturala - Bermeo**
· Zapatuan, 16:45ean, Tabiran.

MAILA GORENA (gizonak)
**Abadiño - Uritarra**
· Zapatuan, 15:30ean, Astolan.

LEHEN ERREGIONALA (emakumeak)
**Ezkurdi - Ariz**
· Domekan, 16:00etan, Tabiran.

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)
**Zorrontzako - Plentzia**
· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.

BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)
**Berriz - Betolatza**
· Domekan, 12:00etan, Berrizburun.

**> ARETO-FUTBOLA**

HIRUGARREN MAILA (gizonak)
**Elorrioko Buskantza - Oiartzun**
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.
**Sasikoa Durango - San Jorge**
· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian.

MAILA GORENA (gizonak)
**Abadiñoko Gaztetxie - Jarrilleros**
· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)
**Mallabia B - Erandio**
· Domekan, 16:00etan, Zaldibarren
**Abadiñoko Txopoa - Racing Tolosto**
· Domekan, 11:30ean, Traña-Matienako kiroldegian.
**Mendibeltz - Bermeo**
· Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian

EMAKUMEEN ERREGIONAL MAILA
**Sasikoa - Muskiz**
· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.
**Beti Gol - Goiztiri**
· Domekan, 12:00etan, Larrea kiroldegian

**> SASKIBALOIA**

ZILARREZKO LIGA (gizonak)
**Zornotza S.T. - Cambados**
· Zapatuan, 18:30ean, Larrea kiroldegian.

EUSKADIKO LEHEN MAILA (gizonak)
**Tabirako Baqué - Deusto Loiola**
· Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian.

EUSKADIKO LEHEN MAILA (emakumeak)
**Tabirako Baqué - Deusto Loiola**
· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.

EUSKADIKO BIGARREN MAILA (emakumeak)
**Tabirako Baqué - Arizti**
· Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian.

Berbaz

**Inmaculada Sañudo Ugarte** | Zuzenbidean doktorea eta abokatua | Durango, 1966

# *"Bankuek hartutako jokaeraren menpe dago sistema honen funtzionamendua"*

Zoru-klausularengatik zor zaiena eskatu dezakete herritarrek; bankuek hiru hilekoan ebatzi behar dute



> **BERBAZ** Aitziber Basauri

**Zoru-klausularengatik herritarrei zor zaiena eskatzeko bide berria zabaldu da Espainiako Gobernuak onartutako Errege Lege Dekretuagaz. Hala ere, prozedura estrajudizial hau hasi aurretik, "izan litezkeen ondorioak ezagutzeko", Inmaculada Sañudo abokatuak oso garrantzitsua deritzo aholkularitza eskatzea. Prozedura honek ez du hiru hilabete baino gehiago iraungo.**

**Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (EBJA) sententziaren ondotik zabaldu da bide berri hau. Zer dio horrek?**
EBJAk ulertu du, nire ustez egokiro, klausula deusez bada, deuseztasun hori kontratuaren hasieratik ulertu behar dela, eta, horrexegatik, hasieratik itzuli behar dela behar ez bezala kobratutako dirua. Azken finean, EBJAk dio Espainiako Auzitegi Gorenak ezin duela kontsumitzailearen babesa mugatu abusuzko klausula baten aurrean.

**Zein aukera zabaldu dizkie zoru-klausulengatik kaltetuei?**
Hipoteka sinatu zen unetik, bankuak zoru-klausula jartzeagatik interes gisa behar ez bezala kobratutako dirua bueltatzea eskatu dezakete; kreditu edo mailegu kontratuan interesik baxuena ezartzeagatik soberan kobratutako dirua itzultzea.

**Akordioa lortuz gero, epaiketa baten prozesu-kostuak aurreztuko lirateke.**
Orain arte, epaitegietan demandak osotasunean baietsi dituzten prozedura judizialetan, bankuak zigortu dituzte prozesu-kostuak ordaintzera. Egia da prozedura honegaz, bankuak eskainitako diruagaz konforme egonez gero, epaiketa-kostuak ordaintzea ekidingo litzatekeela. Baina, Errege Lege Dekretuak dioenez, eskaintza baztertu eta bide judizialera joz gero, bankuak diru gehiago eman beharko balu baino ez lukete zigortuko prozesu-kostuak ordaintzera.

**Orduan, zeintzuk dira onurak?**
Bankuek arauak zehaztutako hiru hilabeteren barruan erantzuten badute —horretara behartuta ez dauden arren—, eta benetan behar ez bezala kobratutako dirua bueltatzen badute — hau da, itzuli behar dutenaren kalkulu zuzena egiten badute—, zoru-klausularen kaltedunak bide judizialera joanda baino arinago berreskuratuko luke dirua. Hala ere, bankuek hartutako jokaeraren menpe dago sistema honen funtzionamendua. Gainera, auzia hiru hilean konpontzen ez bada ere, ez dituzte bankuak zigortuko, eta eskainitako diru kopuruak gainbegiratzeko mekanismorik ere ez da jarri.

> *"Bankuek erabakiko dute dirua eskaini ala ez; eta zenbatekoa ere bai"*

**Bankuen esku utzi dute dirua bueltatu ala ez?**
Bai. Bankuek erabakiko dute dirua bueltatzea eskaini ala ez; eta zenbatekoa ere bai. Horregatik, Errege Lege Dekretua guztiz eskasa da, eta hori aplikatzeak teorian helburu duenaren kontrakoa eragin dezake. Izan ere, erreklamazioa eginda bankuaren eskaintzarik lortu ezean, kaltetuak demanda jartzeko denbora atzeratu baino ez luke egingo.

**Dirua itzuli ezean epaitegietara joateko aukera dago?**
Aurretiazko erreklamazioa borondatezkoa da, baina, behin bide hori hartzea erabakita, honako lau kasuetan egin daiteke: bankuak erreklamazioa ukatzen badu; hiru hilean bankuaren erantzunik jaso ezean; bankuaren kalkuluagaz edo eskaintzagaz bat ez bagatoz; eta, kexa jarri zenetik hiru hileren barruan bankuak dirua eman ez badu. Ezingo da auzitegietara jo prozesu estrajudiziala tramitean baldin badago.

**Hipoteka bernegoziatzeko aukera ere eman dezakete?**
Errege Lege Dekretuak "neurri konpentsatzaileak"hartzeko aukera jasotzen du. Beraz, akordioa lortuz gero, zoru-klausulagatiko zorra dirutan barik kredituaren zati bat amortizatuta edo bestelako konpentsazio era bat erabilita kitatu daiteke. Beti ere bezeroa ados badago. Baina, oso komenigarria da ezer sinatu aurretik aholkua eskatzea.

> *"Bankuaren eskaintza jasota, zer egin arduratzen du gehien bezeroa"*

**Hipoteka ordainduta badago ere egin daiteke eskaria?**
Bai. Zoru-klausularen deuseztasun absolutua alegatuz gero, ez dago eperik zehaztuta erreklamazioa egiteko. Aldiz, kaltetuaren adostasunaren akats bat izan dela alegatzen den kasuetan lau urteko epea legoke, hipoteka ordaintzen amaitzen den momentutik.

**Eta zer gertatuko litzake enpresen kasuan?**
EBJAren sententziak kontsumitzaileekin egindako kontratuetako abusuzko klausulekin zerikusia duten datuak aztertu ditu. Enpresek hipoteka maileguetako zoru-klausulak baliogabetzea gura badute, demanda aurkeztu beharko dute.

**Asko joan dira galdetzera?**
Bai. Bankuaren eskaintza jaso ondoren, zer egin dezakeen arduratzen du gehien bezeroa. Eskainitako dirua zuzena den ala ez jakin gura dute. Durangaldean kaltetu asko daude, egoera desberdinetan. Batzuek bankuagaz negoziatu dute; eta, beste batzuek demanda jarri.

**Zein da azken horien egoera?**
Kasu kasukoa da. Etorkizunean zoru-klausula ez jartzeko, behar ez bezala kobratutako dirua itzultzeari uko egin zioten batzuek, edo bankuak inposatutako beste baldintza batzuk onartu. Akordio horietako batzuk deuseztzat jo daitezke —epaile batek onartu ez bazuen—. Hortik aurrera, dirua itzultzea lortu daiteke, baina, erreklamazio judiziala jarri behar da. Aldiz, hipotekaren hasieratik zor zaiena itzultzea eskatuz demanda jarri zutenek, eta epaileak 2013ko maiatzetik aurrerako diru kantitateak bakarrik onartu zizkietenek, itxaron egin beharko dute epaitegiek zer ebazten duten. Ematen du zail izango dutela, euren kasua epaitua dagoelako.

# Inmobiliariak

**AMBOTO INMOBILIARIA**
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

## ETXEBITZAK ALOKAIRUAN

**DURANGO**. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO**. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

**DURANGO**. Errotaritxuena Atiko zoragarria 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

**DURANGO**. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

**ATXONDO**. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

**ELORRIO**. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxita.

**DURANGO**.-Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000**€**.

**DURANGO**. ARTEKALE. Azken etxebizitzak, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€ -tik hasita.

**LEKEITIO**. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ABADIÑO**. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

**ABADIÑO**. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

**DURANGO**. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

**ATXONDO**. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR**. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

## LURSAILAK SALGAI

**ABADIÑO**. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ**. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA**. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO**. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA**. Txalet bifamiliar bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

**AMOREBIETA. LARREA**. 27.000 m2-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

## BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO. GAZTELUA**. Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m2-ko lursaila baserriaren ondoan.

**BERRIZ**. Txaleta 1.200 m2-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

**ATXONDO**. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ**. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA**. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO**. Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

**BERRIZ**. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobeak.

**ISD Inmobiliaria del Duranguesado**
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### IURRETA



• Parking handitik gertu. 65 m2. Hall, egongela handia, sukaldea jarrita, bi logela, bainugela dutxarekin eta hidromasajerako zutabearekin eta balkoi handia itxita. Duela gutxi berriztatua. Igogailuarekin. **160.000€**.

### KAMIÑOPEA- MUNTSARATZ



• 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, despentsa, 2 komun eta bi balkoi handi. **145.000€**. €

### IURRETA



• Correoseko plazan. 68,80 m2 erabilgarri dituen etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, komuna eta balkoia. Eguzkitsua eta argitsua. **129.000€**. €

### DURANGO-KOMENTU KALEA



• Etxebizitza erdialdean, egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta komuna. **120.000€** / Negoziagarria.

### EUBA AUZOA



• 85 m2 erabilgarri. 3 logela, hauetako bat horma-armairu eta guzti, egongela, sukaldea jarrita. Komuna berriztatu berria eta bi balkoi. Naturaz inguratuta eta gune lasai batean. **104.000€€**/ Negoziagarria.

### MATIENA



• 3 logelako etxebizitza 2 logelakoan bihurtua, egongela handiarekin, sukaldea jarrita eta komun bat. Alokairua, erosketa aukerarekin, hileko kuota erosoen ordainketa bitartez. **110.000€**. €

**www.inmoduranguesado.com**

**ETXETXO G. INMOBILIARIA**
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

## AUKERA

- MAÑARIA. Etxebizitzak eta atikoak. Estreinatzeko. **125.000€**-tik hasita.
- MATIENA. 3 logela. Komuna. Berriztatua. 2 Balkoi. Eguzkitsua. **143.000€**.
- IZURTZA. 2 logela. Komuna. Egongela. Bizitzera sartzeko moduan. **80.000€**.
- TABIRA. 2 logela. Komuna. Egongela. Dena berriztatua. **115.000€**.
- DURANGO 3 logela. Komuna. Egongela. Berogailua. **85.000€**.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- BIDEBARRIETA/ ASKONDO. 3 logela. 2 komun. Egongela eta terraza. Eguzkitsua. DENA BERRIA. **180.000€**.
- F.J. ZUMARRAGA. 110m2. 4 logela. Sukaldea-despentsa. Egongela. Galeria. **159.700€**.
- MATIENA. 90m2. 3 logela. Komuna. Egongela zabala. Igogailua. Berogailua. Ganbara. Terraza. **150.000€**.
- MIKELDI. APARTAMENTUA. Erdi berria. Erdialdean. Guztia kanpora begira. Altua. Ganbararekin. **165.000€**.
- LANDAKO ETORBIDEA. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. **226.000€**.
- ABADIÑO. Erdi berria. 83 m2. 2 logela. Komuna. Egongela. Terraza. Sukaldea. Trastelekua. Garajea. **155.000€**.
- BASERRIA. Berriztatua. 295 m2. **395.000€**.
- BASERRIA. Sarria. Familiabakarrekoa. 377 m2. Berriztatua. Lursailarekin. 8.000 m2.
- ABADIÑO. 3 logela. 2 komun. Ganbara. Alokairua, erosteko aukerarekin. **130.000€**.
- Erdialdean. 134 m2. 4 logela. 2 komun. Egongela zabala. Sukaldea esekitokiarekin. Garajea. **230.000€**.
- ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Komuna. Egongela. 2 terraza. Igogailua. **135.000€**.
- ZALDIBAR. Erdialdean. Erdi berria. 45 m2-ko terraza. 2 logela. Komuna. Egongela. Garajea itxita. **148.312€**.
- M. TORRE. 113 m2. 3 logela. 2 komun. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. **220.000€**.
- ANDRA MARI. 112 m2. 4 logela. Egongela. Trastelekua. **140.000€**.
- ATIKOA. Terraza eta guzti, 80 m2. 3 logela. 2 komun. Egongela. Sukaldea. Esekitokia. Trastelekua eta garajea. **250.000€**.
- J. M. ALTUNA. 100 m2. 3 logela. 2 komun. Sukaldea. Esekitokia. Egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. **269.000€**.
- SAN ROKE: BERRIA. Pisu altua, 80 m2-koa. 2 logela. 2 komun. Sukaldea. Egongela zabala. Ganbara. Garajea aukeran. **247.000€**.
- SAN AGUSTINALDE. Erdialdean. 103 m2. Berriztua. 3 logela. Komuna. Terraza **260.000€**.
- F.J. ZUMARRAGA. 100 m2. 4 logela. 2 komun. Ganbara eta garajea. **236.000€**.

## LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN

- C/ERMODO. ALOKAIRUA. **600€**.
- ABADIÑO. Ile-apaindegia. 50m2. **600€**. SALMENTA: **75.000€**.
- ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.
- F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m2. SALMENTA. **150.000€**.
- SAN FRANCISCO. 160 m2. Egokitua. **210.000€**.
- IBAIZABAL. 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIRUA. **500€**.
- KOMENTUKALE. 50 m2. Guztia jarrita. **85.000€**.
- DURANGO. TABERNA martxan. 95 m2. **186.000€**.

**LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN. KONTSULTATU.**
**www.inmoetxetxo.com**

**ALOKAIRUAN ETA SALGAI DITUZUN HIGIEZINEN BERRI EMAN NAHI AL DUZU?**

**Anbotok tarte hau eskaintzen dizu**

**Informazio gehiagorako:**
**Tel.: 946 217 902**
**publi@anboto.org**

# anboto.iragarkilaburrak.com

- 1 HIGIEZINAK
- 2 TEKNOLOGIA
- 3 LANA/NEGOZIOAK
- 4 DENETARIK
- 5 IBILGAILUAK
- 6 HARREMANAK
- 7 AISIA/KIROLA
- 8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

## Higiezinak

### ETXEBIZITZAK

#### SALDU

**Berriz.** Etxe ederra herri barruan, kiroldegiaren eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! la amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainugela, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Aukera oso ona! Tel.: 651-34 80 08.

**Mallabia.** Aukerakoa nekazaritzarako edo lasai bizitzeko, eta oso ondo komunikatuta. Etxea eta 20.000 m2-ko lursaila. Tel.: 655-70 26 47.

**Otxandio.** Lau logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa eta balkoi txiki bat. Ondo argiztatuta; gela guztiek ematen dute kanpo aldera. Anboto alderako ikuspegiak. Beira bikoitza leihoetan. Kontaktuarako: iarteatx@gmail.com (Iñigo)

#### ERRENTAN EMAN

**Atxondo.** Atxondon pisua alokatzen da. 3 logela, 2 bainugela, egongela handia eta sukaldea duen pisua da. Tel.: 699-25 35 32.

**Atxondo.** Arrazolako auzoan dagoen etxe eder batean hiru lagun feminista bizi gara, laugarren batentzako lekua dugu. Alokairua 230 euro dira, gastuak barne. Etorri konpromisorik gabe etxea ikusi eta gu ezagutzera. Deitu: 650 901 491 eta 605 753 966.

**Berriz.** Garajea alokatzen da Berrizen, geltoki kalean. Tel.: 671-09 85 40.

**Durango.** Sukaldea, komuna, egongela, logela eta arropa eskegiteko txokoa dituen etxebizitza alokatzen dut. Apartamentu hau Alde Zaharretik gertu dagoen erakin berrian dago eta oso argitsua da. bat/bi lagunentzako aproposa. 525 euro hilean. Kontaktorako telefono zenbakia: 616-70 35 80. Esther

#### ERRENTAN HARTU

**Durango.** Etxebizitza ekonomiko baten bila nabil Durangon. Tel.: 666-27 28 76.

**Durangaldea.** Durangon eta inguruetan bikotea pisu bila dabil. Bikote arduratsua. Tel.: 631-54 41 25.

### PISUA KONPARTITU

#### PISUKIDE BILA

**Abadiño.** Baserria partekatzeko pertsona bila gabiltza. Leku erosoa eta zoragarria, lursail handiarekin. Garraio publikotik hurbil. Tel.: 609-78 16 02.

**Ziortza-bolibar.** Gela alokatzen da Bolibarren. Tel.: 660-35 80 67.

### GARAJE / TRASTEROAK

#### SALDU

**Otxandio.** Otxandion garaje itxia saltzen da. Tel.: 675-71 72 83.

#### ERRENTAN EMAN

**Durango.** Muruetatorre auzoan garaje irekia alokatzen da 60 eurotan. Garaje itxia alokatzeko aukera ere, autokarabana, furgoneta... Gordetzeko aproposa. Tel.: 679-31 00 83.

### LURSAILAK

#### ERRENTAN EMAN

**Elorrio.** Txabola bat 4.000 m2-ko lursailagaz alokatzen da, leku onean, Elorrioko herrian bertan. Harrema-netarako. Tel.: 644-39 22 20.

## Lana - negozioak

### LAN ESKARIAK

#### OSTALARITZA

**Durangaldea.** Sukaldari laguntzaile lez lan egin gura dut. Esperientzia daukat. Tel.: 655-85 79 95.

**Durangaldea.** Sukaldeko laguntzaile moduan lan egiteko edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Baita pertsona nagusiak zaintzeko ere. Kanpoko langile moduan edo orduka. Tel.: 619-20 69 37.

#### ETXEKO LANAK

**Durangaldea.** Garbitasun arloan lan egiteko prest nago. Lanordu erdian edo orduka. Tel.: 670-67 46 41.

**Durangaldea.** Esperientzia handiko emakumeak orduka plantxatzeko eta etxea garbitzeko eskaintzen du bere burua. Tel.: 645-70 68 39.

#### PERTSONAK ZAINDU

**Durangaldea.** Esperientziadun neska arduratsua lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko, zein ordukako langilea. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-20 36 07.

**Durangaldea.** Etxeko lanak egiteko zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 697-49 20 58

**Durangaldea.** Neska lan bila dabil barneko langile moduan. Esperientzia dut pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 612-55 52 77.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Tel.: 632-20 31 55.

**Durangaldea.** Etxeko lanetan eta umeak zaintzen lan bila nabil. Sukaldean ere aritzen naiz. Tel.: 691-64 67 15.

**Durangaldea.** Lan bila nabil kanpoko langile moduan pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Erreferentzia onekin. Tel.: 602-86 43 76.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Garbiketan ere jarduten dut. Orduka lan egiten dut. Tel.: 632-71 91 70.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua lan bila dabil barruko edo kanpoko langile moduan pertsona nagusiak zaintzen. Sukaldari laguntzaile ere jardun dezaket. Lanaldi erdi edo orduka. Esperientziaduna. Tel.: 602-80 83 85.

**Durangaldea.** Neska lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Esperientziaduna. Barneko langilea. Tel.: 631-95 28 27.

**Durangaldea.** Neska aduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Barruko edo kanpoko langilea. Orduka eta asteburuetan ere bai. Tel.: 602-32 06 50.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua prest dago pertsona nagusiak zaintzeko. Garbiketan ere jarduten dut. Orduka eta asteburuetan. Tel.: 602-01 24 53.

**Durangaldea.** Nagusiak zaintzen lan bila nabil. Asteburuetan. Tel.: 632-70 81 59.

**Durangaldea.** Etxeko lanak egiteko zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 697-49 20 58.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua prest dago pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Orduka ere bai. Kanpoko langilea. Gauetan eta asteburuetan ere bai. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna. Tel.: 632-41 25 57.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzen ditut barneko langile moduan. Tel.: 649-62 69 75.

**Durangaldea.** Garbitzen eta pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest. Pertsona arduratsua. Tel.: 632-63 24 16.

**Durangaldea.** Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Barruko edo kanpoko langile moduan, zein ordukoa. Tel.: 631-65 87 03.

**Durangaldea.** Lan bila umeak edo nagusiak zaintzen. Baita garbiketan ere. Orduka, barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 631-22 37 92.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Barruko zein kanpoko langilea. Gauez eta orduka ere bai. Esperientziaduna. Tel.: 655-77 63 80.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Kanpoko langilea, gauez edo orduka jarduteko prest. Esperientziaduna. Tel.: 655-67 70 35.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barruko zein kanpoko langilea. Gauez eta orduka ere bai. Esperientziaduna. Garbiketan ere jarduten dut. Ostalaritzan, sukalde lanetan esperientzia daukat. Tel.: 635-93 12 24.

**Durangaldea.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, baita sukaldeko laguntzaile modura edo etxe garbiketan aritzeko. Kanpoko langilea eta orduka aritzeko prest. Tel.: 636-64 19 37.

**Durangaldea.** Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest, baita etxeak edo atariak garbitzeko ere. Orduka. Tel.: 608-60 85 09.

**Durangaldea.** Goizez, arratsaldez zein gauez (orduka) zaintza eta garbiketa lanetarako prest. Tel.: 632-46 01 09.

**Durangaldea.** Neska arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko prest. Barneko edo kanpoko langilea. Esperientziaduna. Tel.: 612-41 41 40.

**Durangaldea.** Neska arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko prest. Barneko edo kanpoko langilea. Esperientziaduna. Tel.: 602-81 24 42.

**Durangaldea.** Emakume arduratsua lan bila, barneko zein kanpoko langile moduan. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 632-88 97 96.

**Durangaldea.** Lan bila nabil umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Barneko langile moduan, orduka zein asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 612-22 40 29.

**Durangaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzeko. Garbitasunean ere jarduten dut. Erizain laguntzaile titulua dut. Barruko zein kanpoko langilea. Orduka ere bai. Tel.: 699-65 25 34.

**Durangaldea.** Esperientziadun neska arduratsua lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko, zein ordukako langilea. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 631-35 26 40.

**Durangaldea.** Esperientziadun neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen zein garbitasuneko lanak egiten. Kanpoko zein ordukako langilea eta asteburuetan lan egiteko prest dagoena. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 663-37 51 55

#### IRAKASKUNTZA

**Durango.** Biokimikako ikaslea eskola partikularrak emateko zein umeak zaintzeko prest. Interesa izanez gero, deitu lasai: 688-65 06 46.

**Durangaldea.** Neska euskalduna, administrazio ikasketak eta esperientzia duena, Lehen Hezkuntzan eta DBHn partikularrak banaka zein talde txikietan emateko prest. Tel.: 662-36 41 67 / 946-81 39 40.

#### GAINERAKOAK

**Durangaldea.** Gizona lan egiteko prest, garbiketan, pertsona nagusiak zaintzen, baserrietan eta kotxean banatzaile. Tel.: 602-85 05 05.

### LAN ESKAINTZAK

**LAN ESKAINTZA**

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

• • •

Lanaldi-erdia enpresa durangon dago

**CV:** f.y@outlook.es

#### PERTSONAK ZAINDU

**Durango.** Durangon barneko langile bila gabiltza, zaintzale moduan aritzeko (asteburuetan ere bai). 750 euro; gizarte segurantza; Aparteko 2 ordainsari. Tel.: 688-88 19 22.

#### GAINERAKOAK

**Durango.** Ile-apaintzailea behar da Durangoko ile-apaindegi batean. Lehenbailehen hasteko. Tel.: 946-21 82 18 / 665-70 58 49.

## Ibilgailuak

### BESTE IBILGAILUAK

#### SALDU

**Karabana salgai.** Burstner 470 tk markako karabana salgai. Sukalde frantsesa. 1995ekoa. IAT (itv) pasatuta 2018ra arte. Beti garajean egon da. Egoera ezin hobean. 5/6 ohera arte. Estrekin. osagarriak oparitzen ditugu. Zornotzan ikusgai. Tel.: 946-81 68 60 / 647-31 81 46 / 607-20 62 91.

## Ikastaroak

**BIODANZA TAILERRAK**

Elorrion hilero bi ostiraletan. 18:00-21:00.

• • • • •

Bideratzailea **Mentxu Arjonilla,** irakasle tituluduna.

• • • • •

**Tel.: 626 661 292**

**mentxubiodanza@hotmail.com**

# AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Otsailaren 3an, 18:00etan, Berrizko Kultur Etxean**

## Euria

Iazko urte hasieran estreinatu zuen Markeliñe Zornotzako taldeak 'Euria' antzezlan hau. Ume zein helduei zuzenduriko lana da, galerei aurre egiteko gaitasunari buruzkoa. Ikuskizunak antzerkira doan umea eta antzokian aldamenean daukan heldua heriotzaz, doluaz, edota tristuraz berba egitera bultzatzea gurako lukete Markeliñeko antzerkigileek.

## Jaiak

### :: ABADIÑO

OTSAILAREN 3an

**17:00etan,** Lotxo taldearen erromeria, Ferialeku plazan. DJ Bull, Lonjan

**19:00etan,** San Blas pilota txapelketa, Tornosolo trinketean.

**22:00etan,** idi probak.

**23:00etan,** DJ Kool Thing, txosnagunean.

OTSAILAREN 4an

**13:00etan,** Abadiñoko Done Zezili abesbatza, Santa Agedaren koplak kantatzen, kalerik kale.

**17:00etan,** Sormening (4-5 urte), Txanporta kultur etxean. Calling The Riot + Tears and Beers + Paulie and the Wood Strings + Ayatollah, Gaztetxean. Gaztetxoentzat tailer eta eskulanak, Lonjan.

**18:30ean,** Sormening (2-3 urte), Txanporta kultur etxean.

**21:00etan,** parrillada, txosnagunean.

**22:00etan,** idi probak.

**22:30ean,** Priscilla Band, The Wilsons eta Potato, txosnagunean.

OTSAILAREN 5ean

**11:30ean,** San Blas pilota txapelketako finala, Tornosolo trinketean.

**12:30ean,** trikipoteoa Txiri-Txiri taldeagaz.

**14:30ean,** elkartasun bazkaria, Lonjan. Ondoren, bingo musikala.

**18:00etan,** 6-9 urte artekoentzako antzerkia, Txaporta kultur etxean, eta idi probak.

**19:00etan,** 'Mendia eta Abentura' film laburren emanaldia, Lonjan.

OTSAILAREN 13ra arte

**22:00etan,** idi probak.

OTSAILAREN 18an

**10:00etan,** XXIX. Burduntziko bildots txapelketa eta txakoli erakusketa.

**14:00etan,** bildots bazkaria probalekuan.

## OTSAILEKO AGENDA

Iurreta Eleizateko Udala

| | |
|---|---|
| 4 | **SANTA AGEDA KOPLAK** |
| 6 | **PAPEREZKO HEGOAK:** HAURRENTZAKO IRAKURKETA KLUBA<br>TXOKOLATEZKOA IZATEA NAHI NUKE: ALAINE AGIRRE<br>**17:00** L.H. 3. maila.<br>**18:00** L.H. 4. maila.<br>**EMAKUMEEN LITERATUR TAILERRAK**<br>**18:15** "Escritoras vascas traducidas al castellano"<br>**ANDEREBIDE**<br>Tailerarren hasiera "Suelo pelvico" |
| 7 | **CLUB LECTURE**<br>**18:30** Le chien jaune. le commissaire Maigret / Georges Simenon. |
| 9 | **IRAKUR LAGUNA KLUBA**<br>Guraso eta hezkuntzako profesionalentzat. |
| 10 | **BULARRETIK MINTZORA**<br>**17:00** 3-5 urtekoak + familiak.<br>**18:00** 6-7 urtekoak + familiak. |
| 13 | **PAPEREZKO HEGOAK:** HAURRENTZAKO IRAKURKETA KLUBA<br>MISS TXATARRA: XABIER MENDIGUREN<br>**17:00** L.H. 5. maila.<br>**18:00** L.H. 6. maila. |
| 14 | **HERRI BIBLIOTEKA**<br>**17:30** 3-4 urte, heldu batez lagundurik.<br>**18:00** 5 urtetik gorakoak. |
| 17 | **HERRI BIBLIOTEKAN** IPUIN KONTALARIA<br>**17:30** 3-4 urte, heldu batez lagundurik.<br>**18:00** 5 urtetik gorakoak. |

## Antzerkia

### :: BERRIZ

OTSAILAREN 3an

**18:00etan,** Euria, Kultur Etxean.

OTSAILAREN 4an

**20:00etan,** The Full Monty, Kultur Etxean.

### :: ELORRIO

OTSAILAREN 10ean

**22:00etan,** Chefs, Arriolan.

## Musika

### :: DURANGO

OTSAILAREN 3an

**22:00etan,** Iseo + Keu Agirretxea and Fignuh experience, Plateruenean.

OTSAILAREN 4an

**22:00etan,** Petti eta Etxeko Uzta + Joseba B. Lenoir Gang, Plateruenean.

OTSAILAREN 5ean

**13:00etan,** Inun, Plateruenean.

### :: ELORRIO

OTSAILAREN 9an

**20:30ean,** Moonshine Wagon, Gaztetxean.

## Erakusketa

### :: BERRIZ

OTSAILAREN 4ra arte

Edu Locomotororen erakusketa, Kultur Etxean.

### :: DURANGO

OTSAILAREN 4tik 12ra

Luis Ibañez Aramaio eta Bruno Ibañez Lozanoren erakusketa, Ezkurdiko aretoan.

## Zinema

### :: ELORRIO

OTSAILAREN 8an

**19:30ean,** 'Armairuan' dokumentala, Iturri kultur etxean.

## Berbaldia

### :: DURANGO

OTSAILAREN 7an

**18:15ean,** 'Mugikortasuna eta garraioa Euskadin' berbaldia, Ignacio Perezen eskutik, Adinekoen zentroan.

## Desfilea

### :: DURANGO

OTSAILAREN 9an

**18:00etan,** Korrika moda desfilea, Plateruenean.

### :: BERRIZ
KULTUR ETXEA

**Toni Erdman**
- **barikua 3:** 22:00

### :: DURANGO
ZUGAZA

**La ciudad de las estrellas (La La Land)**
- **barikua 3:** 19:30-22:00
- **zapatua 4:** 19:30-22:30
- **domeka 5:** 18:30-21:00
- **astelehena 6:** 18:30-21:00
- **martitzena 7:** 20:00
- **eguaztena 8:** 20:00

**Resident evil: capítulo final**
- **barikua 3:** 19:30-22:00
- **zapatua 4:** 17:00-19:30-22:30
- **domeka 5:** 16:30-18:30-21:00
- **astelehena 6:** 18:30-21:00
- **martitzena 7:** 20:00

**Lion**
- **barikua 3:** 19:30-22:00
- **zapatua 4:** 19:30-22:30
- **domeka 5:** 18:30-21:00
- **astelehena 6:** 18:30-21:00
- **martitzena 7:** 20:00
- **eguaztena 8:** 20:00 (jatorrizko bertsioa azpitituluekin)

**Ballerina (gaztelaniaz)**
- **zapatua 4:** 17:00
- **domeka 5:** 16:30

**Ballerina (euskaraz)**
- **zapatua 4:** 17:00
- **domeka 5:** 16:30

**El faro de las orcas**
- **eguaztena 8:** 20:30

### :: ELORRIO
ARRIOLA

**Toni Erdman**
- **zapatua 4:** 22:00
- **domeka 5:** 20:00
- **astelehena 6:** 20:00

**¡Canta!**
- **domeka 5:** 17:00

### :: ZORNOTZA
ZORNOTZA ARETOA

**Lion**
- **barikua 3:** 20:15
- **zapatua 4:** 19:30-22:00
- **domeka 5:** 17:00-20:00
- **astelehena 6:** 20:15

**Ballerina**
- **zapatua 4:** 17:00
- **domeka 5:** 17:00

**Welcome**
- **martitzena 7:** 20:15

## > BOTIKAK

**BARIKUA, 10**
09:00-09:00

**De Diego**
Intxaurrondo 22. - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ZAPATUA, 11**
09:00-09:00

**Balenciaga**
Ezkurdi plaza 8 - Durango

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-13:30

**Gaztelumendi**
J.A. Abasolo 2 - Durango

**De Diego**
Intxaurrondo 22. - Durango

**Navarro**
Artekalea 6 - Durango

**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango

**Campillo**
Montevideo etorb. 24 - Durango

**Sagastizabal**
Askatasun etorb. 19 - Durango

**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango

**Larrañaga-Balentziaga**
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

**Bartolome**
Gabiola 2 - Berriz

**Eguren, Isabel**
Trañabarren 15 - Abadiño

**Melero, Rosa Mari**
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoien**
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**DOMEKA, 12**
09:00-09:00

**Gaztelumendi**
J.A. Abasolo 2 - Durango)

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

**ASTELEHENA, 13**
09:00-09:00

**Etxebarria**
Montevideo etorb. 2 - Durango

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**
**Isabel-Guarrotxena, Javier**
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**MARTITZENA, 14**
09:00-09:00

**Unamunzaga**
Muruetatorre 2C - Durango

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**
**Isabel-Guarrotxena, Javier**
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**EGUAZTENA, 15**
09:00-09:00

**Bazan Diaz**
Uribarri 5 - Durango

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**
**Isabel-Guarrotxena, Javier**
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

**EGUENA, 16**
09:00-09:00

**Mugica**
Andra Maria 9 - Durango

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**
Urbitarte poligonoa, 4 P8, Abadiño

**Iruarrizaga, Karmele**
San Miguel 15 - Zornotza

**Sarasketa, Diego**
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

**Aramburu, Maria**
**Isabel-Guarrotxena, Javier**
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

## > ZORION AGURRAK

zorionak@anboto.org
eguazteneko 14:00ak arteko epea

Ermodo, 11 · DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta batzotz egingo dugu.
Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.



> Gure **Iñigo**k pasa dan domekan bete dau lehenengo urtea. Segi dezala hain ona eta jatuna izaten. Besarkada handi bat denon partez.



> Zorionak, **Imanol**! Gure printzipeak 4 urte bete ditu. Patxo potolo-potolo bat danon partez.



> Nilek eta Peruk besarkada handi batez zorionak ixeko Itxaso eta ongi etorri **Jon** esan nahi dotsue! Eta etxeko danak mosu handi bat emon!



> **Enara**, ondo pasa zure 11. urtebetetzea lagunekin eta familiarekin. Muxu handi bat denon partez!



> Abadiñoko sorgintxo polittenak urtetxo bi eitten dauz. Zorionak eta musu asko etxekoen partez eta bereziki, asko maite zaituen Aratzen partez.



> Zezeilaren 6an etxeko txikixak 10 urte beteko ditu! Ondo-ondo pasau eta gustoko oparixak jaso daizuzala!

## > EGURALDIA

| | | |
|---|---|---|
| ZAPATUA | 16° / 10° | |
| DOMEKA | 11° / 5° | |
| ASTELEHENA | 15° / 8° | |
| MARTITZENA | 12° / 4° | |
| EGUAZTENA | 11° / 3° | |
| EGUENA | 13° / 4° | |

anboto.org MUGIKORREAN

Available on the App Store
ANDROID APP ON Google Play



Albisteak agenda
Telefono gida
Parte hartu
Herriko informazioa jaso

**Albisteak** eta **agenda**, bizkor eta eskura.
**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.
**Parte hartu**, galderak eginez, erantzunak lortuz.
**Pertsonalizatu**, zure herria aukeratuz.
**DESKARGATU DOAN !**

## Akuilua

**Alexis Neira Gonzalez** | Youtuberra | Durango, 1987

# “Igual, inoiz 10.000 harpide lortuko ditut eta gero, bat-batean, denak galdu!”

Pressing Catch borroka libreko bideo-jokoen bideoak igo eta haietaz jarduten du youtuben

**> AKUILUA** Aitziber Basauri

**Txikitatik izan ditu gustuko bideo-jokoak Alexis Neirak, eta zaletasun hori partekatzeko aukera eman dio youtubek. “Nire esperientzia kontatzeko eta informazioa partekatzeko aukera”, dio berak. Interneten askatasuna arriskutsua ere badela aitortu du DM Metal-ek.**



**Nola murgildu zinen youtuben?**
Txikitatik ditut gustuko bideo-jokoak. Hamar urtetik gora dira arrebagaz *Upunknown Project* foroa sortu nuela. 30 bat lagun batzen ginen bideo-jokoez, telesailez, zineaz... jarduteko. Hala ere, hori utzi eta inolako arrakastarik izan ez zuen blog bat sortu nuen. Urte batzuetara, web orria ere zabaldu nuen, baina, kostu ekonomikoengatik hori ere utzi egin nuen. Eta, bat-batean youtube kanal bat sortu nuen: San Mamesen edo kontzerturen baten grabatutako bideoak igotzen hasi nintzen. Orduan oso lotsatia nintzen.

**Gaur arte?**
Bai. Bideo-joko batzuk grabatu nituen eta youtubera igo. Bat-batean, Espainia eta Hegoamerikatik nituen bisitak, eta gero eta harpide gehiago: 2, 5, 10...

**3.000 jarraitzaileletik gora lortu dituzu.**
Bai, 3.300etik gora ditut. Bideo-joko berria erosi nuen, eta zenbait bideo igo ondoren, gero eta gehiago ziren nituen bisitak. Harrituta geratu nintzen! Blogagaz egin gura nuena lortu nuen: nire esperientzia kontatzea, informazioa partekatzea.

**Milioika jarraitzaile dituzte zenbait youtuberrek...**
Champion League da hori. AEBetan bizi den Getxoko youtuber bat ere oso famatua da: Lucus Game. *Pokemon Go* jokoaren bideoak igotzen ditu orain. Nire kanala oraindik oso txikia da. Ez dut presarik, ez dut honetaz bizi gura. Zaletasuna da. Igual, inoiz 10.000 harpide lortuko ditut, eta gero, bat-batean denak galdu!

**Pressing Catch borroka libreko w2k17 bideo-jokoaz jarduten duzu youtuben.**
Txikitatik pressing catch-aren zale amorratua naiz: El último guerrero, Hulk Hogan... itzelak dira!

**Eta zuk, jarraitzen diozu youtuberreren bati?**
Ez. Egia esan, kanal gutxitan nago harpidetuta; musika eta politikari buruzkoak dira.

**Oro har, oso gazteak dira. Zuk araua apurtzen duzu?**
Baliteke, baina, inoiz ez da berandu!

**Ezaguna zara kalean?**
Ez. Hala ere, azaroan borroka libre amerikarra izan zen Bilbon, eta han nengoela begira-begira nuen gaztetxo bat. Bat-batean, mugikorra atera eta argazkia atera zuen, ez dakit ezagutu ninduelako-edo (barrez). Bideoblog bat igo nuen gero, eta iruzkin batean, ikusi ninduela zioen batek. Ez dakit bera izango zen. Beste behin eskolako lagun bategaz topo egin eta youtuben ikusi ninduela esan zidan .

**Frikitzat hartu zaituzte?**
Bai! Eta harro nago. Friki hitza txarto erabiltzen da. Pasio bat muturreraino eramaten duena da frikia; pasio bat biziki maite duena.

**Youtube da munduan 3. webgunerik ikusiena. Telebista baino gehiago.**
Bai. Hausnartu beharko genuke zergatik amatatzen den gero eta gehiago telebista, eta zergatik sartzen diren gero eta gehiago gazteak youtuben. Youtuben gura duzunean sartu zaitezke, gura duzuna ikusteko. Interneten klik pare bategaz gura dudana daukat. Etorkizuna da.

**Zer du youtubek horrenbeste erakartzeko? Arriskutsua ere badela uste duzu?**
Oso erraza da youtube erabiltzea. Hala ere, egia da interneten askatasuna arriskutsua ere badela. Muga batzuk daude.

**Zer behar du youtuber batek?**
Dirua. Ordenagailua, bideo-jokoak, grabatzeko aparatua... Horrez gain, denbora, originala izatea eta lotsarik ez izatea. Zu zeu izatea, azken batean, eta zorte apur bat ere bai, jakina.

## LAUHORTZA


**UXUNE MARTINEZ**
Soziologoa




### Homo sapiens bihotz-beltzduna

Jakin-min berezia sortzen du homininoen jatorriak eta eboluzioak. Zientziak aurrera egin badu ere, giza eboluzioak baditu oraindik argi-ilunak. Badira 6-8 milioi urte homininoak sortu zirela, baina hauen garapena, txinpantzetik gizaki modernora arte, ez da lerro zuzena izan. Izan ere, gizakion eboluzioan baditugu katebegi galduak. Hala ere, gauza bat badakigu, euskaldunok eta gainontzeko gizakiok Afrikan dugu sorlekua. Handik gatoz, bai.

Afrikatik irten eta bestelako lurraldeetara joan ziren gure arbasoak. Bide berdina egin zuen Gambian jaio eta urtarrilaren 22an Veneziako Kanal Handian ito zen gazteak. Makina bat begiren aurrean urperatu zen eta hainbatek grabatu zuen gertatutakoa. Telebistan eta komunikabideetan irudiak zabaldu eta polemika piztu da inork ez baitzuen uretara salto egin gazteari laguntza emateko. Vaporetto ontzietatik flotagailuren bat bota zioten. Antza, Veneziako kanaletako ontzien protokoloaren arabera, hori da prozedura egokia. Baina gaztea ez zen heldu.

Hari begira zeuden homo sapiens petoek “zoaz Afrikara!”, “alde zure herrira!”, “Afrikara, beltza!” garrasi egiten zioten bitartean uretan desagertu zen. Badira ere bideo grabazioetan barrezka entzuten direnak gaztea flotagailura hurbildu ezinik dagoelako.

Komunikabideetan zabaldu da bere buruaz beste egin nahi zuela. Italian epaile batek kasua argitzeko ikerketa bideratu du. Hipotesien artean igeri egiten dugun bitartean, gertatutakoak aztarna garbiak utzi dizkigu. Agerian utzi du gizakion eboluzio bidean sortutako espezie mespretxagarria: homo sapiens bihotz-beltzduna.


ALBERDI
HARATEGIA



ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658 · SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722